


uk

170. zenbakia / 2010eko otsailaren 22a





Alzheimerraren begirada baikorra.

AFA a2

Alzheimer eta Bestelako Neuro-Endekapen
Gaixoen Senideen Elkarte.

Zure emozio-lotura.

**Ikastaroak • Hitzaldiak • Aholkularitza • Familia-babesa
Formakuntza • Topaketak • Aisia • Psikoestimulazioa**

AFA a2 - Sopolana - Bizkaia // Tf.. 946084044-608152816
a2.alzheimer@euskalnet.net

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Armetzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
AHOLKULARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Zuberoa Iturburu,
Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola,
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
© Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarte
Topaguneko partaidetza da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRIEN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA
900 940 111

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Aratusteak.
7. LEHEN ETA ORAIN. Areetako Kale Nagusia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Isabel Rodriguez.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopolana 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Santa Ageda Getxoko baserrietan.
28. ARGAZKIA. Bizkaitarrak Saharan.
30. BERBETAN. Jose Luis Mezo.
34. FOTOGRAFIA. Lumine Motus.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Gasteizko Zinemastea v.2.
43. MUSIKA. NUN taldearen agurra. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Q nobela euskaraz. Erreseinak.
45. KIROLAK. Jon Santacana eskiatzaile paralinpiarra.
46. ELKARRIZKETA. Begoña Zubieta.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Dando la brasa, Neguri.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Portuko mojen ikastetxea, 1978.
54. AITORMENAK. Miren Amuriza.

Azala: Lumine Motus



30 Mezo Bigarrena

Sakonean

Hego Ameriketara ezaguna izan zen Mezo Bigarrena, "El Vasco" kantautorearen gaineko erreportajea



11 Isabel Rodriguez



54 Miren Amuriza



Leioa Berri Auto

- Ibilgailu berriak
- Aukerako ibilgailuak
- Tailerra
- Autokarabanak

Bisita egizu gure web berria
eta hartu txanda on-line

www.renaultleioa.com

Leihatila

> Aiala Elorrieta

Pintxoa

Zein da Euskal Herriko kanpo eskaldunoi buruz duten irudia? Ezaguna da eskaldunok daukagun jaten ospea. Nola ez! Euskal Herrian osso ondo jaten da! Pintxoaren erriualak arrakasta berezia izaten du bisitarien artean. Tabernetako barrak pintxo gainezka, kolore guztietakoak. Gura beste jan ostean tabernariagaz kontuak egin (gu imitatuz, zotzak behera bota eta gero), eta hurrengora! Euskal Herriko kanpo, euskal "estiloa" salzten duten taberna eta negozio-kateak gero eta ugariagoak dira. Aurreko batean, Bartzelonako Bornean nengoela, kuriositatez hauek batera hurbildu nintzen. Pintxo betetako barra, zein baino zein dotoreagoak. Aukeratu ezinean egon nintzen, sukaldetik tortilla plater bat atera zen arte. Tabernariak, labana hartu, eta hamasei zati egitea lortu zuen! Nik, tamaina ikusita, pentsatu nuen, doan izan behar zutela. Bai zera! Bakoitzak 1,80 balio zuen! Sustoagaz, ahoa zabaldu eta mokadu bakarrean irentsi nuen. Artean espantatuta, ondoko tabernara sartu nintzen. Begiz jo nuen Berria-ko kamiseta jantzita zeraman mutil bat, eta eskalduna ote zen galdetu nionean, hara zer erantzun zidan, serio-serio: Eskalduna ez, baina txalaparta jotzen dut. Ttakun-ttakun!

gu geu**Etorkizunean bizi gara**

Lerro hauek idazten ditugun bitartean, kalean musika entzuten da eta bulegoko leihotik eskola eta ikastoletoak umeak ikusten ditugu mozorrotuta, gurasoek harrotasunez puztuta, argazkiak ateratzen dituzten bitartean. Badakigu, bai. Aratusteak aspaldi joan ziren eta aurtengo mozorroa ganbaran gordeta daukazu, ahaztuta dagoeneko.

Baina komunikabideetan (eta batez ere egunero kaleratzen ez direnetan) etorkizunean bizi gara, bizi behar gara. Urtarrilean, Eguberrietako oporrei agur esan barri diegunean, aratusteak eta Santa Ageda ditugu buruan; azken horiek pasatutakoan, Aste Santuko herrietako egitarauak; oraindino beharrera berokia jantzita gatozenez, udako jai herrikoien barri eman behar dugu. Gertakariei aurre hartu behar diegu, egutegiak markatzen duen data ahaztu barik. Zaila da aste biko aurrerapenagaz bizi ez zarenari hori transmititzea; horregatik, informazioa behar baino beranduago heltzen zaigu askotan. Orduan, pitonisarena egitea egokitzen zaigu eta ezin duzu imajinatu zelako konplikatu den bola barik zerbaite lortzea.

Agian, profesional batengana jo beharko dugu. Ezagutzen duzu baten bat?

UK-ko lantaldea**Iritzia**

Getxoko Kultura Zinegotziak krisiek kulturaren duten eta izan beharko luketen eraginaz berba egin digu oraingoan.

Kultura eta krisia

Krisia dala eta berba batzuk idazteko eskatu deustie UK aldizkarietako. Beti lotu izan dogu krisia batez be esparru pribatu edo enpresa mundura, baina irakurleak kontuan izan behar dau erakunde publikoetan be bere eragina daukala,

«Gero eta argiago daukagu danok kulturak ekonomiagaz daukan harremana»

eta zelako eragina euki be. Ekonomiak beherantz egiten dauenean, zerga gitxiago batu eta beste erakundeetatik laguntza eskasagoak jasotzen dabez instituzioek, eta udalek be bai, behintzat. Ohitura izan dogu gure inguruko herrietan diru gitxiago dagoanean kulturako aurrekontuak murrizteko. Hasteko argitu gura neuke kultura esaten dodala, ez Euskara, Euskara gure irizpide politikoa eta ideologikotik kulturara bakarrik mugatzea ez dalako zuzena; horregatik 2010eko aurrekontuetan Euskara sailak ez dau jaitsierarik nabarmendu bere kopuruetan, kulturak aldiz bai zentzu orokorrean. Beste sailetan bezala "behe-

rapenak" izan doguz kultura sailean eta batez be beste erakundeetatik jasotzen genduan laguntzaren jaitsiera islatu da kulturako aurrekontuetan.

Baina uste dot kulturaren indarra gero eta egonkortasun handiagoa lortzen ari dala, gero eta argiago daukagu DANOK, kulturak ekonomiagaz daukan harremana gero eta sendoagoagoa dala; Getxon egiten diren jaialdiek ostalaritzan eta dendetan daukien eragina, edota Getxo Antzoki barriak Algortako erdialdean izan leikean berpizkundearen ondorioa ez da bakarrik kulturaren duintasunerako, eremu horren bultzada ekonomikorako be bada. Eta hau da, hain zuzen be, "kulturaren eta krisiaren" arteko lotura, ez "krisiaren eta kulturaren artekoa", kulturak berak lagundu eta bultzatu lekealako krisia gaitzen eta aberastasun ekonomikoan txertatuz egoera hobetzen.

Eta hausnarketa bardina egin gura neuke euskararen arlotik. Euskara be bada traktore ekonomikoa, euskararen aldeko politikek gero eta gehiago azpimarratzen dabe euskarak kalitatearen aldetik emoten deustan "plus" hori edozein produkturi, ondasun edo jakiri, enpresa edo dendari; euskararen nabarmendu egiten danak bere ekonomian ondo jasoko ditu emaitza positiboak. Eta honaino helduta konparatu gura neukez neure berbak Euskararen ezagutzeagaz bota direan hainbat guzurregaz batera, ez da egia euskaraz ikasten dabenek emaitza urriagoak lortzen dabezana hezkuntzan, EZ DA EGIA BE EUSKARA BERE EKONOMIAN TXERTATZEN DAUENAK INBERTSIO TXAR ETA UMEZURTZIK EGITEN DAUENIK, Euskara eta kultura dira, etorkizunean ez, gaur egun dagoen krisiari aurre egiteko neurri bat gehiago, eta "Jaungoikoa", ez da makala gero neurri hori!

Koldo Iturbe
(Getxoko Kultura Zinegotzia)



ALGORTA, OTSAILAREN 12A

Poliziak eta presoak/ Biak alkarren aurka ikusi genituen Algortan, otsailaren 12an. Handik zebiltzan, lapurrak, arrantzaleak, eskimalak, mexikarrak... San Fermin jaietako entzierroa ere ikusi ahal izan zen. Hori dena goiz bakarrean, eta nola da posible? Umeen inauteriak ospatu zintzelako. Tellexe kalean gozatu zuten musikaz, bertan egindako argazkia da. Uribe Kostako herri guztietan egin dira antzeko ekimenak astotan, ohi legez. Hori bai, moztorro azpitik hamaika arropa jantzita, horza lagun izan dugu-eta, baina ez dirudi poliziaz eta preso horiei asko axola zaienik... O / Argazkia: Asier Mentraka

GETXOKO EUSKALTEGIAK

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA
 LAZKAPEAN KALEA 10, 1. A
 TEL.: 94 694 61 93
 EUSKALTEGIA@GETXO.NET
 MADRIDA 48100

LAZKAPEA EUSKALTEGIA
 GURE ANIZENA 8
 TEL.: 94 694 61 93
 LAZKAPEA@GETXO.NET
 MADRIDA 48100

I. A. AEBRE EUSKALTEGIA
 ARGITAKO ERREBIDEA 104
 TEL.: 94 694 61 93
 I.A.AEBRE@GETXO.NET
 MADRIDA 48100

BAI & BY GETXO
 A. G. EUSKALTEGIA ERREBIDEA 8
 TEL.: 94 694 61 93
 BAI & BY@GETXO.NET
 MADRIDA 48100

Etorri Euskaltegira!

18-23 urte bitartean badituzu, Getxoko Udalak Euskara eskola ordainduko dizkizu euskaltegietan. GUK IKASTAROK ORDAINDU, ZUK EUSKARA IKASI. TITULUA LORTU ETA DENOK IRABAZLE

GEUK ORDAINDUKO DUGU ZURE TITULUA!

NORENTZAT DIRA DIRU-LAGUNTZAK

- 18-23 urte bitarteko gazte gehotarrak (1987-1992 bitartean jaioetakoak), lan-merkatuan sartu aurretik euskara ondo jakin dezaten.

BALDINTZAK

- Dinamizko euskara maila izan behar du eskatzaileek (euskaltegietako 6. maila edo 1B maila).
- Aukara hau baliozkoa izango da, gehienez, bi ikasturtez.
- Ikastaroak, gutxienez, egunean 2 ordukoak izango dira. Trinkoak eta barmetegiak ere diruz lagunduko dira. Egonaldiak gastuearako ez da laguntzarik emango.
- Ikasturte osoko eskola-ordu guztien %85era joan izana frogatu behar du eskatzaileak.

ARGIBIDEAK:
 Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua
 Tel.: 94 694 61 93
 euskara.zerbitzua@getxo.net
 www.getxo.net

[lehen]



GETXOKO UDAL LEIURUTEGIA

[orain]



ASERMENTOAKA

Iraganez doa denbora* beti / AREETAKO KALE NAGUSIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > baso modernoa



2010eko urtarrila, BARRIKA

Testua: **Peio Arondo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Aizak hi mutil mainontzi

Erreta nago erabat,
nigan bizi dira denak
basoa naizenez, ni izaten naiz
besteen habitat.
Atera zaizkit txinpartak
beroak bezain politak;
orain haizeko orraziaren
itxura ere daukat.

Zenbat hosto (e)ta landare
suak erreta ez daude,
baina aukera dut izateko
aldizkarien jabe.
Bertan nago parez pare
modan bainago ni ere;
gaur egun dena eramaten da
kolorerik gabe.

Beti kultiboz kultibo
nion suari bertigo;
behin harrapatu (e)ta utzi ninduen
ezer gabe, txiro.
Baina hazi naiz astiro
(e)ta ezin naiz gorago igo;
nire errautsa beroetatik
jaio naiz berriro.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidai iezaguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



Luberrri Basolanak, SL
Axe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf: 94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta errite lanak.

- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aritzea eta destrinkotzea, berrikalitzea, soropil galzak eta belar galztoak tratatzea.

- Inausketak
Hartzeko, mantentzeko, berritzeko, zuhaiska apaingarriak inauszea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

getxo > sarea josten, puntuak hariz lotuz euskararen alde



Otsailaren 11n batu ziren elkarteetako lagunak Aldai Patronatuan, Algortan

Abiatu da Sarea josten ekimena Getxon. Herriko 35 eragiletik gora batu dira (euskaltegiak, euskara elkarteak, ikastetxeak, hedabideak, kultura eta kirol elkarteak, gaztetxeak...) euskararen aldeko elkarlana sustatu asmoz. Zehazki, Getxoko euskaldunak eta euskaltzaleak elkartu gura dituzte, elkar ezagutzeko eta jarduera xume batzuk elkarregaz antolatuz. Otsailaren 11n egin zuten aurkezpen-bilkura Algortako Aldai Patronatuan eta ekimenaren nondik norakoak azaldu zituzten. Asmoa dute apirilaren erdialdera hainbat ekimen egiteko, aste bitan zehar. Programa finkatuz joango dira datozen asteotan, baina dagoeneko badabilta lehen ekimenak prestatzen. Batetik, parte-hartzaile guztien arteko erakusketa eta irratsaio batzuk: zeintzuk diren, zer egiten duten eta egitasmoa zergatik bultzatzen duten azaltzeko. Bestetik, ekimen orokorraren amaiera izango den herri-bazkaria, apirilaren 24an. ○

bertsolaritza > IX. ABRA saria otsailaren 27an Villamonten



Jone Uria

la Euskal Herri osotik iritsiko dira Algortara bertsolariak hilaren 27an, ABRA saria jokatzera. Jone Uria, herriko bertsolari gaztea, ondokoakaz lehiatuko da: Peio Ormazabal bizkaitarra, Amaia Iturriotz eta Ane Labaka gipuzkoarrak, Saioa Alkaiza nafarra eta Ekaitz Samaniego arabarra. Villamonteko kultur etxean egin dute hitzordua, 19:00etan, Miren Loizagak emango dizkie gaiak. Epaila arituko dira, ordea, Martin Aramendi, Iñaki Aurrekoetxea, Eneko Bidegain eta Asier Ibaibarriaga. Ez dago ordaindu beharrik ikustera sartzeko. Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) antolatu ohi du sariketa, eta badira bederatzi! Aurten 30 urte bete ditu ALBEk eta badirudi bertsozintzan urte emankorra izango dela auzoan. Zorionak zuei eta onenak irabaz beza! ○

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa





...harria ...lehengo garaia... ...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

[talaia]

euskara > eskualdeko hizkuntza ondarea zabaltzeko hitzarmena



Otsailaren 10ean sinatu zuten hitzarmena hainbat alkatek eta Mankomunitateak

Uribe Kostako Hizkuntza Ondarea jasotzeko eta zabaltzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Mankomunitateak, Getxok, Leioak eta Erandiok. Helburu nagusia datozen urteotan monografikoak egitea eta argitaratzea da, ingurunea eta historia hobeto ezagutzen laguntzeko. Ahozko tradizio errimatuari eta herri egutegiari, zein Uribe Kostako mitologiari buruzkoak izango dira monografikoak. Material gehiena adineko pertsonen egindako grabaketak dira, beste ikerketa batzuetako materialez aberastuak. Beste helburua egoera txarrean dagoen materiala berreraikitzea da, ondoren zabaltzeko. Orain arte, herri bakoitzak bere kabuz egin du zeregin hori, batera lan egiten hasiko dira hemendik aurrera, herriz herri jasotako materiala bateratu, zaindu eta formatu erabilgarrian jarri. Ateratako lana herritarren artean zabaldu gura dute ondoren, hainbat produktu sortuz. Urte bi iraungo du hitzarmenak eta 60.000 euro inbertituko dute. ○

martxoak 8 > emakumeen hirugarren mundu martxa ere abiatuko da



2005eko Emakumeen Mundu Martxako aurkezpena Algortako Villamonte Kultur Etxean

Berezia izango da aurtengo Emakumeen Eguna, martxoaren 8a. Egunean bertan abiatuko da, mundu osoan aldi berean, III. Emakumeen Mundu Martxa. Uribe Kostara martxoaren 10ean iritsiko da, baina egongo da ekimenik aurretik. Martxoaren 8an eskualdeko manifestazioa deitu du Mundu Martxako Plataformak Algortan. Algortako gaztetxean antzerkia eta afora egingo dute 5ean. Uribe Kostako Mankomunitateak emakumeen surf txapelketa antolatu du 6an eta 7an, Arrietaran. Bertaratzeko martxak egingo dituzte. Gainera, indarkeria jasan duten emakumeen arreta koordinatzeko protokoloa sinatuko dute 8an Mankomunitateak eta hainbat erakundek. Leioako Andrakek kontzentrazioa egingo du 11n, 13:30ean. Udalek ere ekimenak egingo dituzte. ○

[erretratua]



“Teleberriko kirol tartearen erdia emakumezkoen eskaintza gura nuke; zoritxarrez hori ametsa da”

Isabel Rodriguez > Getxo Rugby taldeko mele-erdikoa

Kirol gehienetan gertatzen den bezala, lagun batek animatuta hasi zen Isabel Rodriguez errugbian 16 urtegeaz. Dagoeneko, 18 urte joan dira lehenengo esperientzia horretatik eta gaur egun bere egunerokoaren parte oso garrantzitsua betetzen du: “Nire bizitza da; errugbiko jendeagaz mugitzen naiz, parrandak eurekaz egiten ditut, mendira joaten gara, bazkariak antolatzen ditugu... dena da niretzat”. Getxo Rugby taldeak eman dio mundu horretan murgiltzeko aukera: “Lehen, erreferentzia zen herrian, edonork ezagutzen zuen Getxo Rugbyko norbait; orain hori ez da gertatzen, jendeak ez du konpromisorik gura asteburuetan”. Herriko taldean mele-erdikoa izateaz gain, Euskadiko eta Espainiako selekzioetan jokatzeko du; azken horretan kapitaina da: “Astebururo izaten dut zerbait; askotan familiagaz egoteko denborarik ere ez daukat. Ezkontzak, bazkariak... egun garrantzitsu asko galdu ditut; ia ilobaren jaiotza galdu nuen”. Azken urteotan, maila bikaina erakutsi dute Isabelek eta bere taldekideek; hala ere, komunikabide oso gutxitan ikusi ditugu: “Ez dut uste telebistan sekula agertuko garenik; nire ametsa Teleberrietan kirol tartearen erdia emakumeen eskaintza da. Zoritxarrez, beteko ez den ametsa izango da. Emakumeok ez dugu dirua ematen, ez gara espektakulua; gure eskubideak propaganda egiteko baino ez dituzte erabiltzen”. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763

www.cianoplan.es

Laurita Siles eta Edurne Gonzalez Ibañez > Artistak, Trini Dinastiaren sortzaileak

“Jendeari ulertterraza egin zaio erakusketa, gaur egungo arte moderno kontzeptuala ez bezala”

Milaka urte ez baditu ere, indar handiz dator Trini Dinastia. Laurita Siles (L) getxoztar marbellarrak eta Edurne Gonzalez Ibañez (E) sestaoarrak sortu zuten dinastia 2009an, Txoni Manoli txakur-artista txinatarraren laguntzagaz. Euskal Herriko, Txinako eta Andaluziako folklorea nahastuz eta lurrazpiko munduari begi zorrotzez begiratzuz, erakusketa ederra sortu dute hiru artistek. Otsailean Leioako Campusean ikusi ahal izan genuen eta martxoaren 4tik aurrera Gasteizko Araba aretoan egondo da. Artistek, erakusketaz eta euren proiektuez berba egin digute.



Laurita Siles eta Edurne Gonzalez Ibañez, erakusketa atzean dutela

—Laura, Marbellatik Algortako Portu Zaharrera; zergatik hurbildu gurera?
L—2003an Algortan egon nintzen urte betez, Seneca bekari esker. Ondoren, Kanada, Gasteiz eta Frantziatik pasa ostean, Marbellara bueltatu nintzen, herrian gelditzeko asmoz. Algortako lagun batzuk bisitan etorri ziren eta hona bueltatzea erabaki nuen 2007an. Nire aitak ipurdia kulunka baten gainean dudala esaten dit.

—Folklorea eta artearen arteko harremana aztertzen duzu.

L—Orain tesina egiten nabil; folklorea arte garaikidean, globalizazioaren testuinguruan, zelan erabiltzen den aztertzen dut. Euskal Herriko eta Andaluziako kasuetan zentratu naiz eta identitatearen berreraikuntza izan dut kontuan. Andaluza kultura oso anitza da, kultura asko baititu jatorrian; euskaldunen kasua guztiz kontrakoa da. Hortik abiatuta, artistek folklorea erabiltzeko daukaten

modua aztertzen dut. Ikus-entzunezko artean, zentratu naiz, soinuan batez ere.
—Zuk, Edurne, lur azpiko espazioak hartu dituzu ikerketa gai.

E—Tesina, lurpeko espazio sinbolikoaren inguruan egin nuen. Orain tesia egiten nabil, gai beragaz jarraituz. Gizateriaren historiaren garapenean lurpeko espazioek izan duten eragina azter-

«Bakoitza ikerketa ezberdin bategaz joan ginen txinara»

tzen dut. Kobazuloetatik eta estruktura primitibo naturaletatik hasi eta estruktura eta zergati konplexuagoetara heldu naiz. Lurrazpiko eta lurgaineko arkitekturek elkarren beharra daukate. Sinbolikoki aztertzen saiatu naiz; jendeak espazio horiei buruz daukan ikuspegia aztertu dut. Gehienetan, txoko misteriosuak izaten dira, iluntasunagaz lotu izan

direnak. —Proiektu bi eta ikerketagai ezberdin dituzue. Zelan bukatu zenuten Txinan elkarregaz?

L—Ez genuen aurretik elkar ezagutzen, Txinara joan baino hilabete lehenago izan genuen elkarren barri, txinera eskoletan. Beka eman ziguten Judas Arrietak Pekinen duen estudioa (MA Studio) joateko. Hainbat artista industrialde batean batu dira eta bakoitzak bere estudioa dauka. Giro oso polita dago; berbaz ulertzen ez geuena, zentzumenen bitartez ulertzen genuen, artistikoki. Hilabete bi egon ginen han.

—Nondik urten zen erakusketarako ideia eta Trini Dinastia?

E—Bakoitza gure ikerketagaz eta Txinagaz zerikusia zuen proiektu ezberdin bategaz joan ginen; bertako testuinguru gure proiektuagaz harremanetan jarri behar genuen. Han egon ginen bitartean, bien lana oso lotuta egon zen.

Batak besteari gomendioak eman eta proposamenak egiten genizkion. Azkenean, talde lana izan zen dena: Rita (Laurita), Trini (Edurne) eta Txoni Manoliren (bertan aurkitutako txakur pekindarra) artekoa. Erakusketan, ikerketa lanaren emaitzak ikusten dira, identitatearen eta folkloreak eta lurrazpiko txokoen inguruko azterketak. Hara joan garen bekadun bien ikerketa lanetik haratago, zerbait gehiago aurkitu dute erakusketara hurbildu direnak: familia giroa. Dena testuinguru berdinean girotuta dago, gai bi landu arren.

—Getxoarten eta Leioako Campusean egon zarete, zelako harrera izan du?

E—Getxoarten nahiko polemikoa izan zen erakusketa; antolatzaileek ez zuten ulertzen Txoni Manoli kolektiboko artista bezala sartu gura izatea. Azkenean, dena konpontzea lortu genuen eta gustura egon ginen. Orokorrean, jendeak interesa erakusten du, ulertterraza egiten zaio gure artea. Ez dute gaur egun egiten den arte moderno kontzeptual ulertezin hori bezala ikusten. Lauritaren lana batez ere oso hurbila da, folklorea guztien eskura baitago. Gainera, kulturen arteko nahasketak horiek, barregarriak egiten zaizkie.

—Trini Dinastiagaz proiektu gehiago egiteko asmoa daukazu?

E—Txinako esperientziak askorako eman du. Oso pozik gaude, baina aldi berean, berdina azaltzeaz nazkatuta ere. Urte bete joan da Txinan egon ginetik eta oraindino gaiari bueltak ematen jarraitzen dugu. Orain, bakoitza gure ikerketa lanagaz jarri behar gara. Dena

«Kulturen arteko nahasketak barregarriak egiten zaizkio jendeari»

den, Txinara bueltatzeko asmoa daukagu eta, ziur asko, Dinastiagaz gauza gehiago egingo ditugu.

L—Ni Madrileko Arte Sonoro jaialdian egongo naiz maiatzean Txalamobilagaz (bizikleta gaineko txalaparta mugikorra). Hori Madrileko folklorera egokituko dut eta “Txulapa txalapartari” edo antzeko zerbait asmatuko dut. ○

Gobelako lanak hasi dira

Behar handiena zuten guneak lehenetsi dituzte, Salsidu eta Aiboa inguruak



Getxo I Institutuaren parean hasi dira lanak

2008ko ekainaren 1ean gainezka egin zuen Gobela ibaiak eta lagun asko euren etxe eta garajeak urez betetzen ikusi zituzten. Orduetik, Getxoko Udalaren, auzokideen eta Uraren Euskal Agentziaren arteko hika-mikak entzun ditugu kalean zein komunikabideetan. Auzokideen poztasunerako, otsailaren 9an hasi ziren beharginak obrekin, Ura agentziak iragarri baino egun batzuk lehenago.

Salsidu eta Aiboa inguruan hasi dira lanak; izan ere, inguru horrek premia handiena du. Sei hilabetez luzatuko dira; hasieran, hondeamakinak Getxo I Institutu pareko ezkerreko ertzean egongo dira. Ibaiaren ibilguren edukiera handitu gura dute, eurite handiak daudenean gainezka ez egiteko.

Salsiduko zubia dagoen tokian, oinezkoentzako pasabidea jarriko dute; izan ere, zubia bota egin behar da, ibaiak

gora egiten duenean presa gisa funtzionatzen duelako eta bertan gelditzen diren zikinkeriek ez dute ura pasatzen uzten. Lanek irauten duten bitartean, zirkulazioa moztuko dute puntu horretan eta Oicosa eta Los Puentes auzoetako bizilagunek Berangotik sartu beharko dira euren etxetara.

Ibaiaren beheko aldean, Etxezuri, Larrañazubi eta Neguri inguruan, lanak konplikatuagoak eta, beraz, garestiagoak izango dira; Jolasetako eta Leioako Etorbideko zubiak bota beharko dituzte, ibaiaren edukiera handitu eta urez bete ahal izango diren tartekak egin beharko dituzte.

12 hilabete beharko dira lanak amaitzeko, 2011ko otsailerako amaituta egotea aurreikusi dute. 1.009.000 euro inbertitu beharko dira guztira eta ibaiaren ur-maila 80 zentimetrotan jaitsiko dute. ○

NORABIDE ALDAKETAK GETXON ETA ROMON LANENGATIK

Udal saneamendu sarea hobetzeko Getxoko Udala aurrera eroaten ari den lanak direla-eta, norabide aldaketak eta seinaleztapen barria aurkituko dute Romo eta Andra Maritik kotxez ibiltzen direnek. Zientzako antzinako errepidean, Benta eta Gorrondatxe hondartzaren arteko zatian, errail mozketak egingo dira bidea txandaka emanaz. Romon oster, Kresaltsu eta Santa Eugenia kaleetan, ibilgailuen joan-etorriak eten dituzte eta inguruko kaleetan norabide aldaketak izango dira. Lanek aurrera egin ahala, gerta litezkeen aldaketen barri emango du udalak.

ANDRA MARIKO AUZOKIDEAK GASA BIDERATZEAREN ALDE

Benta eta Azkorri artean Maidagan kalean Udala aurrera eroaten ari den lanak haserre daude inguru horretako zenbait auzokide. 47 sinadura aurkeztu dituzte Udalean gas naturala euren etxeetara bideratuko ez dutela salatzen; udal iturriek aurreratutakoaren arabera, Naturgasegaz berbetan ari dira hori konpontzeko. Lanek Maidaganeko goiko partearen saneamendu sarea hobetzea ekarriko dute; horrez gain, BI-3722 errepidean 2000 metroko bidegorria egingo dute.

133 ETXEBIZITZA BABESTU BENANTZIO ETA SARRIKOBASON

Eusko Jaurlaritzak eta Getxoko Udalak hitzarmena sinatuko dute Benantzion eta Sarrikobason Babes Ofizialeko 133 etxebizitza eraikitze (53 Benantzion eta 80 Sarrikobason). Hitzarmenaren arabera, Udalak etxebizitzak emango dizkio Jaurlaritzari, eta trukean, Udalak Romoko aparkalekua jasoko du. Horrela, aparkalekua barritu eta Areetako Xake plaza hobetzeko aurrera eroan gura duten proiektura egokituko dute.

Getxon Bizi 2010

programaren barruan, etorri barrientzako tailerrak egingo dituzte



Getxora heldu barriek lehenasuna izango dute

Getxoko Udalak eta *Munduko Medikuak* Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta, etorkinak hartzeko *Getxon Bizi 2010* programa jarri zuten martxan otsaila hasieran. Honen helburua, bizilekua Getxon finkatu barri duten atzerritarrei ongizate pertsonalean, gizarteratzean eta lan munduratzean laguntzea da. Doako lau tailer eskainiko dira lau helburu betetzeko: gizarte eta lan gaitasunak sustatzea, migrazioaren hasierako fasean sortzen den estresa gutxitzea, atzerriko beste pertsona batzuk harremanetan jartzeko laguntzea eta harrera gizarteko pertsonakaz elkartzeko

baldintzak sortzea.

Elikadura eta sukaldaritza, informatika, mendekotasunean dauden pertsonen zaintza eta ostalaritzaren ingurukoak izango dira ikastaroak; eskolak domekantan egingo dituzte Romoko Ezekiel Agirre kaleko 21. zenbakian. Ikastaro guztien amaieran, ibilaldia egingo dute Euskal Herriko geografia, historia eta kultura ezagutzeko. Tailerrak doakoak dira eta Getxoko Herritarren Arretarako Bulegora hurre-ratu behar da izena emateko. ○

Informazio gehiago: 94 466 01 51/
www.kaixogetxo.net

Wanted lehiaketa

Gazteen **ideiak** sarituko dituzte; lanak **martxoaren 12a** arte aurkez daitezke



Wanted lehiaketako joan den urteko saridunak

Udal Gazteria Zerbitzuak *Wanted* lehiaketa antolatu du bigarren urtez gazteen ideiak eta proiektuak saritzeko. 18-30 urte bitarteko neska-mutilek hartu ahal izango dute parte eta proiektuak martxoaren 12a arte entregatu ahal izan-gar dira.

Aurkeztutako ideiak antzekizun laburrak, laburmetriak, erakusketak, enpresa bat sortzeko ideiak, lehiaketak antolatzeko proposamenak, blogak edo bestelako ekimenak izan daitezke. Bete beharreko baldintza bakarra, udalerriar-entzat interesa duten proiektuak izatea da; Getxoko "giza bizitza, ekonomia eta

kultura aberasten lagundu" behar dute.

Proiektua aurkeztean, zer egin gura den azaldu behar da, aldez aurretik pres-tatutako txantiloian. Ondoren, apirilaren 10ean, topaketak egingo dituzte *Gaugun* gaztelekuan; bertan, talde bakoitzak aurkeztutako proiektua azal-du beharko du.

Epaimahaiak, proiektuaren bidera-garritasuna, originaltasuna, barrikuntza eta zehaztapen maila baloratuko du. Sariak dirutan (15.000 euro banatuko dituzte) zein espeziatan izan daitezke. ○

Informazio gehiago: 94 466 03 53 /
wanted.getxo.net

HIRU ANTZERKI LAN AUKERAN ANDRES ISASIN

Otsailan eta martxoan hiru antzerki lan ikusi ahal izango dira Andres Isasi Musika Eskolan. Otsailaren 27an, 19:00etan eta "Mujeres en escena" zikloaren barruan, *Quiero llegar a fin de mes* antzez-lana egingo da AZTIK taldearen eskutik. Hurrengo egunean, umeentzako *Eta zer* obra egingo da 12:30ean (gaztekeraz) eta 18:00etan (euskaraz). Dar-dar produkzioak taldeak antzeztuko du azken hori; sarrerak salgai daude dagoeneko lau euroren truke. Martxoaren 6an, *Xabinaitor* obra ekarriko dute Wazemank-eko lantaldeko kideek, arrastiko 20:00etan.

ZINE ZIKLOA AMUMAK ELKARTEAREN ESKUTIK

Amumak Algortako lagunak elkarteak, zine zikloa eta hitzaldia antolatu du datozen egunetarako. Otsailaren 26an, arrastiko 18:00etan hasita, zine foruma egingo dute Villamonteko Kultur Etxean. "V de Vengeance" filma proiektatu eta hitzaldi-etzabaida egingo dute Juan Carlos Perezen laguntzagaz. Martxoaren 18an, arrastiko 19:00etan, "Politica en Getxo" hitzaldia emango dute; hilaren 22an Jose Antonio Agirre Getxoko alkatea izandakoaren heriotzaren 50 urte betetzen dira, hori aitzakiatzat harturik egingo dute hitzaldia.

Informazio gehiago:

<http://sotavento.typepad.com>

HOBKUNTZAK EGINGO DITUZTE BOLUEN

Getxoko Udalak Bolueko hezegunea hobetzeko lanak egin, eta berau ezagutzeko bisita gidatuak antolatuko ditu. Orain arte, espaloia hobetu eta ikasleentzako ibilbide ekologikoak antolatu ditu. Datozen hileetan, espezie inbaditzaileak kendu, bertako landareak eta animaliak aztertu, etxola konpondu eta informazio panelak barrituko ditu. Horrez gain, ingurune berezi hori ezagutzeko bisitak sustatu gura ditu; horretarako, ornitologoen azalpenak lagundutako ibilbideak diseinatuko dituzte.

Etxeart

Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48830 Gortiz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

lagusana

libros y letra pequeña

Basagoiti etorbidea 59

(Tellagorri plaza)

48991 ALGORTA

Tf. 94 491 14 12

lagusana@lagusana.net

Itxaso Mendiluze > Bosteko erakusketaren komisarioa

“Gogoan ditugu beti lehengo erretratuak, enkarguz egindakoak; gaur egun nahiko aldatu da hori”

Martxoaren 7ra arte ikus daiteke Bosteko Arte Garaikidearen Erakusketa ibiltaria Kultur Leioan. Itxaso Mendiluze izan du aurten komisario eta erretratuak aukeratu du gaitzat. Andoaindarra sortzez, bertako kulturguneko erakustaretoaz arduratzen da. Bilbon bizi da eta hainbat egitasmotan parte hartzen du.

—Hiru artistaren lanak aukeratu dituzu, oso desberdinak dira, baina hirurek lantzen dute erretratuak.

—Gai bati buruz egiten dugu erakusketak, aurten erretratuak. Hiru artista aukeratu ditut, Elena Goñi nafarra da lehena. Pintura lantzen du, koadro monokromatikoak. Pertsonak erretratatu ditut testuinguru baten inguruan. Bigarrena Ramoz Perez bizkaitarra da. Hiru autoerretratu dira, bere barne biluzketa. Edonor, ispilu aurrean jarri eta bere burua margotzen hasiz gero, biluztu ere egiten da aldi berean. Eta azkenik aukeratu dut Iñaki Saez argazkilaria. Leire Ugaldegaz egin du lan. Bere obrak dira agian desberdinenak. Izan ere, erretratuak erakusten dituzte argazkiek, baina bere bizitzaren erretratuak. Hau da, biak agertzen dira, eta elkari egindako argaz-



Erretratuak aukeratu ditu Mendiluzek aurtengo edizioarako

kiak dira. Artista oso desberdinak dira, baina gaiak batzen ditu, gaiak ematen dio osotasuna erakusketari.

—Zergatik erretratuak?

—Beno, gai bat aukeratu behar zen eta beti izan dut gustuko erretratuaren ideia. Gaur egungo artean ikusita are gehiago. Gogoan ditugu beti lehengo erretratuak, enkarguz egindakoak. Gaur egun nahiko aldatu da hori, eta hiru artista hauek dira horren erakusle.

—Bostekoren hamahirugarren edizioa da, zure lehena da komisario gisa.

—Alizia Fernandezek egin du lan hau aurreko aldietan, baina hasierako ideia berdinagaz hartu dut nik. Bost herritan zehar dabil erakusketak eta bost artistaren lanak biltzen zituen hasieran. Geroago hiru sortzailerak jaitsi zen, baina herriak berberak dira: Leioa, Getxo, Amorebieta, Basauri eta Arrigorriaga. Egitasmo polita da, gozagarria. ○

Lamiako, etxe barri asko

Zaharrak bota eta **etxe barriak** egiten hasiko dira, auzoaren **urbanizazioagaz amaitzeko**



Auzokide guztiak eraikin barrira aldatu dituzte dagoeneko

Lamiako eta Txopoeta izugarri aldatzen ari dira azken urte hauetan. Metroa iritsi zen lehenik, auzo bien arteko etxebizitza bloke andana ondoren, eta orain gutxi aldatu dituzte etxe zaharretako bizilagunak eraikin barrira, Leioako metro geltokiaren ondoko blokeak. Bitartean etxe zaharrak eraitsi dituzte. Dagoeneko lan hori amaitu dute, auzoetako Barne Erreforma eta Birgaitze Plan Berezi handiaren lehen fasea burutzuz.

Eta berehala ekingo diote etxe barriak eraikitzeari, dena jarraian egiteko asmoa dauka Udalak. Orain urte batzuk hasi ziren eraikinetako bat egiten eta laster sartuko dira bizilagun barriak

55 pisuotan, Correosen bulego ondoan.

Planaren bigarrena fase honetan, eraikitzeko falta diren 180 etxebizitzetarik, 55 libre izango dituen blokea egiteko lizentzia eskaera eta inguruaren urbanizazio-lanak burutu gura dituzte. Lan horien artean, Lamiakoko Ikastetxe Publikorako sarbide barria irekitzea dago.

Ia auzokide guztiei eman diete ostatu Leioako metro ondoko eraikinean, 144 familiari, 127 jabego erregimenean eta 17 alokairuan. Plaza bat eta umeentzako jolastokia ere egin dituzte. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak berretsi du Lamiako eta Txorierrri lotzeko igogailurako laguntza emango duela. ○

BESTE 221 ETXEBIZITZA ONDIZEN ETA ALDAPAN

Babes Ofizialeko 106 eta tasatutako 67 etxe, eta beste 48 salmenta libre erregimenean eraikiko dituzte Ondiz eta Aldapa gunean. Hiri-antolamendurako plan nagusian behin-betiko aldaketa egin dute, eta ondorioz, “zorua prestatu” ahal izango dute beste etxebizitza partida bat eraikitzeko. Zehazki, herri erdigunea Ondizegaz lotu gura dute, Aldapatik. Ia 43.000 metro koadroko eremua da, horietatik 22.500 metro koadro gorde dute gune publikoetarako.

ZUHATZU TXOKOA ALOKA DAITEKE

San Bartolome Kulturguneko eraberritan kokatu du Udalak Zuhatzu txokoa, eta dagoeneko, erabil daiteke. Txokoa eskatzen duenak, Leioan erroldatuta ez ezik, udalerrian ere bizi egin behar du. Astelehenean eguenera arte, eta domekatarik, 10:30etik 0:30era erabil daiteke txokoa; eta bariku, zapatu eta jai bezperetan, 10:30etik 01:30era; eskaera bakarra egin daiteke egun bakoitzeko. Gutxienez, 15 egun lehenago, eta gehienez, 30 egun lehenago bete behar da eskaera orria Udal-Erregistroan.

Informazio gehiago: www.leioa.net

GIZA ART ERAKUSKETA MARTXOAREN 4TIK 13RA

Emakumeek ekonomiari egindako ekarpena izenburua darama Kultur Leioak hartuko duen erakusketak, baina Bizkaiko Foru Aldundiak Giza Art esaten dio. *Mujeres en la Diversidad* elkartearen ideia da eta emakume etorkinek diharduten lan-eremuak nabarmendu gura dituzte 20 argazkitan; Hiba Agorria argazkilaria egin ditu. Helburua da bizkaitar guztiak ohartaraztea emigrazioaren fenomenoaz. Martxoaren 4-13 bitartean bisitatu ahal da, baina martxoaren 30era bitartean, Bizkaiko sei herritan ibiliko da guztira. Mungian inauguratu zuten abenduan.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULUAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tf. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BASTARTEA



URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

OSABIDE HORTZ KLINIKAZ
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Odontozia
- Periodontia
- PADI

Bidebasi 27, beheko eskalera
ALGORTA
94 430 76 96



[erandio]

Itxaso Larrea > Mendibaiarte abesbatzako zuzendaria

“Neguan egiten dugu jaialdia, arrantzaleen senideek gehien sufritzen duten garaian”

Eta badira zazpi; Habanera jaialdiaren zazpigarren edizioa izango da martxoaren 6an, Altzagan. Mendibaiarte abesbatzak antolatuta ohi du “hotzaren habanera” izenagaz ezaguna den ekimena. Zergatik esaten diote horrela? Itxaso Larrea koruko zuzendariak azaldu digu.

—Arrakasta dauka jaialdiak, beti betetzen duzue kiroldegia, baina zer topatuko dugu martxoaren 6an?

—Jaialdia esaten diogu, baina kontzertua da. Bizpahiru abesbatza elkartzen gara. Euskal Herritik kanpoko talderen bat datorrenean, biok abesten dugu. Baina guztiak bertokoak garenean hiru koru ere elkartzen gara, beti da-eta merkeagoa. Urte batean gauza bat egin eta hurrengoan bestea, tartekatzen dugu. Ez dugu gonbidaturik errepikatu urteotan. —Asturiasetik datoz aurtengoak, ezta? —Avileseko kultur elkarteak dator. Bila ibili eta kurrikulum eta izen ona daukaten, aproposa deritzot eurak ekartzeari. Hasieran pare bat abesti kantatzen genuen guk, baina geroz eta gehiago zabaldu dugu errepertorioa. Aurten bospasei kantu ditugu, urtero habanera barri bat kantatzen saiatzen gara.



Martxoaren 6an, zapatua, 20:00etan izango da jaialdia, Altzagako kiroldegian, eta doan

—Zergatik dira “hotzaren habanera”? —Habanerak abesteko ohiko sasoia iraila da, baina gure jaialdia neguan da, hotz garaian. Julio Puertas kultura zinegotzi ohiari otu zitzaion urtarrilean egitea, bere garaian hasi ginen jaialdiagaz. Orain, ordea, otsailan edo martxoan egiten dugu, urtarrilean koruak gabon kantakaz dabilta eta. Baina aproposa da. Arrantzaleen senideek gehien sufritzen dute-eta neguan, tenporaleakaz. —Baina bestelako jaialdietan ere parte

hartzen duzue, askotan gainera.

—Gonbidatzen gaituzten guztietan, asko dira, urtean hogeit bat inguru. Batzuk aipatzearen, orain urte batzuk gure inauguratu genuen Avilako nazioarteko jaialdia, Mirandan ere abestu izan dugu, eta Euskal Herri osoan. Otxoteen jaialdietan ere kantatzen dugu; izan ere, Mendibaiarte otxote gisa sortu zen. Baina jaialdi horietan tartekatzen ditut abeslariak, Mendibaiarte hogeit bat lagunek osatzen dugu eta. ○

Garbiketa enpresa barria

Aldi Baterako Enpresa-Elkarteak **garbituko du herria**, Udalagaz egin hitzarmenaren ondorioz



Zarama batzeko eta kaleak garbitzeko 14 ibilgailu barri erosi ditu Udalak

Udalak ABEEri, Aldi Baterako Enpresa-Elkarteak (Urazca SA eta Ansareo SA enpresek osatutakoa), esleitu dio herriko garbiketa datozen 8 urterarako. Urtero 1,9 milioi euro kostako da zerbitzua, eta etorkizunean, beste urte biz luza lezakete hitzarmena.

Haren ondorioz, zaborra batzeko eta kalea garbitzeko 14 ibilgailu barri erosi ditu Udalak, egun erabiltzen dituzten hogeit ibilgailuetatik gehienak barrizteko.

“Isilagoak, ekologikoak eta azkarrak” dira, “modernoagoak”, Udalak dioenez. Gainera, Erandioko geografiari egokitu-ta ei daude eta udal-serigrafia barria jarri

diote, jendeak erraz identifika ditzan.

Hamazazpi metro kubikoko edukiera daukan kamioia da ibilgailurik garrantzitsuenak: ibilbide bakarrean 7 tona zabor organiko jaso ditzake. Bigarren kamioi bat ere eskuratu du Udalak, txikiagoa da, baina ibilbide bakarrean 7 tona hondakin jasotzeko gaitasuna dauka. Landa-eremuetan, barriz, edukiontzia atzeko partetik zamatuko dituen kamioia erabiliko dute langileek.

Galtzadak eta espaloiak garbitzeko, ureztapen sistemadun zisterna-kamioia erosi dute, baita eskoba-kamioi handi-agoak eta azkarragoak ere. ○

SAGARDOTEGIRA URTEERA BERBOTSEGAZ

Sagardo garaia hasi zen urtarrilean, eta urtero legez, sagardotegira urteera antolatu dute martxoaren 6rako Berbotse Erandion Euskaraz elkarteak eta Berbalagunek. Hernani aldera joan ohi dira normalean, baina aurten, Tolosa bisitatuko dute, eta bertako Eguzkitza sagardotegia. Eguerdiko hamabietan jarri dute hitzordua Altzagako gasolinoan, eta gaueko hamaiketan izango da itzulera (antolakuntzak alda lezake). La Plaza tabernan eros daitezke txartelak. Berbotsekiek 30 euro ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek, 35 euro. Martxoaren 1a da izena emateko azken eguna.

BLUESARI BURUZKO KONTZERTUA 27AN

Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean aukera egongo da Bluesari buruzko kontzertu didaktikoaz gozatzeko, otsailaren 27an, Bergarako Belceblues taldeagaz. Arrastiko 19:30ean hasiko da eta euro 2 ordaindu beharko da.

BEHARGINTZAK SEI IKASTARO BARRI

Langabetuentzako sei ikastaro abiatu barri ditu Behargintzak, Udalaren Enplegu eta Garapenerako Zentroak; 90 lagunek parte hartu ahalgo du. Komertzioetako saltzaile, ile-apaintzaile eta estetizista (Batxiller arteko ikasketadunentzat), menpeko pertsonen administrazio eta ekonomia kudeatzaile, eta PYMESerako sorkuntza eta barrikuntza teknikari izateko ikastaroak dira; gizarte baliabideen ikastaroa ere egingo dute (horiek denak Lanbide Heziketa edo unibertsitate ikasketak dituztenentzat). Gainera, 45 urte arteko eta Batxillergo tituludun emakumeek sukaldelaguntzaile eta garbiketa industrialak ikastaroetan parte har dezakete.

Informazio gehiago: Behargintzan (Desanexio kalea, 4)

Torre 2
48930 ALGORTA
94 491 12 71
iratigorta@gmail.com

irati

OPARIAK MOA GAZTEA

Ujuribefm
fm
107.8

Ge.iz Iratzi

Zure publikitatearen hemen
Zure publikitatearen hemen
Zure publikitatearen hemen

Tf. 94 491 13 37

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?

ETXEBIZITETARAKO IGOGAILUAK
ESKAILERA IGOGAILUAK
PLATAFORMAK

ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... Tf. 902 54 08 54

www.arlan.biz

ELKARTEEN DATUAK UDALEKO WEB ORRIAN

Udal elkarten ordezkariak eta zentroak harremanetan jartzeko datuak argitaratuko dituzte Udalaren web gunean. Herritarren eta elkarten arteko harremana errazteko eta sustatzeko asmoa dauka Udalak ekimen honegatik. Halere, "datuen jabeen pribatasun eta intimitatearenganako errespetua" gorde gura du. Hortaz, eta datuen babeserako araudiari jarraituz, elkarten informazioa eta argitaratzeko baimena ondoko helbide elektronikora bidali behar da: www.hall-kulturala@sopelana.net. Elkartearen izena, helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa edota web orriaren helbidea bidali behar dira, besteak beste.

PLASTIKOZKO POLTSA, ANTZINAKO KONTUA

Egiozu aurre plastikoa, plastikozko poltsaren erabilerearen aurkako kanpaina abiatu du Uribe Kostako Mankomunitateak eta Sopelako 30 dendak haregatik bat egin dute. Zehazki, patata-fekulazko poltsak banatzen dabilta dendok, plastikozkoen ordez. Hartara, barriz erabilgarria ez den edozein poltsa gutxinaka erabiltzeari utziko diote bezeroek. Janari, arropa, zapata, botika, kirol zein liburu dendak daude 30en artean.

HAITI HERRIAGAZ ELKARTASUN MOZIOA

Amerikako Karbi itsasoan dagoen Haiti herrialdeagaz elkartasun mozioa onartu zuen udalbatzak urtarilaren 28ko Osoko Bilkuran. Lurrikara handia jasan du Haitik eta laguntza eskaini gura dio Udalak. Mozio bi aurkeztu zituzten. Lehenengoan, Haitiri 1.000 euroko diru-laguntza ematea proposatu zuten. Bigarrean, Haitiri kanpo-zorra barkatzeko eskaria nazioarteko eztabaida guneetara eroan dezala proposatu zioten Espainiar gobernuari (Europar Batasunera, Nazioarteko Diru Funtsera...). Mozio biak onartu zituzten.

Sopelana kirolzalea

Eraikin barria inauguratu gura dute martxoan Urko kiroldegian; gimnasioa izango du



Larrabasterra auzoaren ondoan dago Urko kiroldegia

Geroz eta aitzakia gutxiago daukate sopoloztarrek kirola albo batera uzteko. Izan ere, eraikin barria amaitzen ari dira Urko kiroldegian eta martxoaren amaieran inauguratu gura dute. Udalak 550.000 euro inbertitu du egitasmoan eta oraingo kirol eskaintza osatzera dator.

Gimnasioa izango da instalaziorik garrantzitsuenak. Areto bi izango ditu, eta horrela, igerilekuko *fitness* egiteko aretoa arinduko du, orain jendez lepo egoten da eta. Gimnasioko aretoetako bat *spinning* edo bizikleta finkoa egite-

ko erabiliko dute. Bigarren aretoan, ordea, oraindik ez dakite zehazki zer irakatsiko duten. Izan ere, inkesta egin gura dute erabiltzaileen artean eta eskaintza euren beharretara egokitu. Bestalde, zuzendaritza bulegoa, elkarteentzako gela bi eta beste hainbeste aldagela hartuko ditu eraikin barriak.

Kanpoaldean, barriz, komunak egingo dituzte, etorkizunean kiroldegia barriri handitzen dutenerako.

Eraikin modernoa izango da eta ez estetika aldetik soilik; identitate txartel bidezko kontrola izango du. ○

Jorge Nuñez > udal-igerilekuko kirol ekimenen koordinatzailea

"Aquamaratoiagaz ezagutzera eman gura dugu *aquafitness* kirola"



Aquamaratoian parte hartzeko: 94 406 55 20 ala sopelana@servicio.es

Azken urteotan bogan dago gimnasia uretan egitea, *aquagym* delakoa. Sopelan zortzi talde daude, eta gainera, urtean bitan egin ohi dute Aquamaratoia, aurtengo lehena izango da otsailaren 26an, barikuan, 20:00etan eta udal-igerilekuan. Jorge Nuñez da egitasmoaren koordinatzailea.

—Zer da Aquamaratoia, uretako gimnasia klase erraldoia?

—*Aquafitness* moduko klasea da, baina apur bat luzeagoa. Sopelako igerilekuan klasean praktikatzen ditugun aldaera guztiak egiten ditugu. Lehenik, ariketa libreak daude, osagarriak bakoak. Bigarrenik, ur-gaineko materialagaz egiteko ariketak daude, makilak, pilotak eta pisuakaz. Hirugarrenik, erresistentzia materialakaz egiteko mugimendu eta ariketak praktikatuko ditugu, ahate-guanteakaz. Eta azkenik, koreografia egingo dugu musikak lagunduta. Horiek dira *aquafitness* edo *aquagym*

kirolaren aldaera desberdinak. Saio bakarrean praktikatuko ditugu denak, ordu eta erdiz.

—Zer asmo daukazue maratoiagaz?

—Jarduera hau ezagutzera ematea da gure asmoa, edo ezagutu bai, baina fisikoki zertan datzan ez dakitenei, baita *Aquafitness* kirola sustatzea ere.

—Kirol hori bogan jartzen ari da ala?

—Badira urte batzuk *aquafitness* kirolagaz hasi ginena Sopelan eta beste hainbat tokitan. Batzuetan moda izan da eta

«Saio bakarrean praktikatuko ditugu *aquafitness*aren aldaerak»

ez da sendotu, baina beste batzuetan, jarraitzen dugu, materialak barriztuz... Harrera ona dauka gainera.

—Ikasleek bakarrik parte hartzen dute maratoian?

—Erdiak bai, eta beste lagunak dakartza kirola ezagutzera. Bere kabuz animatzen denik ere badago. ○

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide
pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturbarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

BERANGOETAN ALAIN GACIAREN AKUARELAK

Norbaitek uste zuen Berango artista gutxi zegoela? Erabat oker dabil. Alain Garcia dugu horren erakusle. Izan ere, bere margoak ikusi ahalko dituzu Berangoeta Kultur Etxean laster. Akuarelak dira martxoan erakutsiko dituenak, hilaren 1etik 14ra bitartean. Erakusketa bisita dezakezu astelehenetik barikura 12:00etatik 14:00etara, eta 16:30etik 21:00etara. Asteburuetan, barriz, goizez bakarrik bisitatu ahalko duzu, 12:00etatik 14:00etara.

APUNTA DAITEKE ASTE SANTUKO AISIGUNEAN

Negua aurrera doa eta dagoeneko udaberriko ekintzak prestatzen dabilta Berangoetako eta Santa Anako kultur etxeetan. Aste Santuko Aisigunean parte hartzeko izena emateko epea zabaldu dute; martxoaren 9 arte duzu tartea. Baina zertan datza aurtengo Aisigunea? Udan eta gabonetan legez, umeentzako eta gazteentzako udalekuak izango dira, baina Aste Santuan. Zehazki zer ekimen egongo den jakiteko kultur etxeetako batera hurbildu behar duzu, eta bertan galdetu. Izan ere, aurten ez dute informazioa bidaliko etxeetara. Gogora ezazu Aisigunea 3-18 urte bitartekoei zuzenduta dagoela eta plazak mugatuak direla, hortaz, mugitzen hasteko garaia duzu.

Informazio gehiago:
Berangoeta (94 668 21 43)
edo Santa Ana (94 668 11 79)

Garaizar
barrikuntzak

- Igeltsaritzak orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

TF. 944 430 52 43 / 607 952 977 • garaizar@euskalnet.net
Biete kalea 1 • ALGORZA

Emakumeak ere badaude Ageda Otxandategitik neskarik txikienera, **herriko emakumeen irudien ibilbidea** ikusgai



Berangoko emakumeen 400 argazkitik gora batu dituzte erakusketarako

Berangoko emakumeak. Atzo, gaur eta bihar erakusketa abiatuko dute martxoaren 6an, pilotalekuan. Herriko emakumeen irudien ibilbidea izango da, Ageda Otxandategitik hasi eta 0-2 urteko neskarik gazteenetara; gertuko historiaren protagonista izan diren Berangoko emakumeen argazki sorta ikusi ahal izango da.

Esan bezala, Ageda Otxandategiren aurpegia izango dute ibilbidearen abiapuntu. Haren anaia Simon bezala, XIX. mendean herriaren ongile izan zen, baina inor gutxi gogoratzen da garaiko emakumeak eta Agedagaz. Emakumeak jendaurrera

agertu gura ditu Udalak ekimen honeguz.

Ez dute lan erraza izan herriko emakumeen irudiak lortzeko, gaur egungoaz ez ezik duela ehun urtetik gorako erretratuak ere batu dituzte eta. Baina herritarren laguntza izan dute, laguntza eskerga: *“Emakumeak protagonista dituzten argazkiak eskatzen ibili gara eta erantzuna pare-bakoa izan da”*, 400 baino gehiago eskuratu dituzte.

Argazkiak bidali gura dutenek oraindino badaukate aukera, korreo elektronikoz ondoko helbide elektronikora: berangoko-emakumeak@gmail.com.

AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK - NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IRASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

Berdintasunerako II. Plana > parte-hartze prozesua

Teknikari, politikari eta herritarren iritziak osatu gura dute diagnosis



Inola Urdulizko emakume elkarteko kideak planaren eraketan parte hartuko dute

Mapa erreal gaurkotua osatu gura dute Uribe Kostako Mankomunitateko lagunek; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren lehenengo fasearen helburu nagusia da hori. Horretarako, parte-hartze prozesua jarri dute martxan, udara arte luzatuko dena gutxi gorabehera. Plana eratu aurreko diagnosis egiteko, Mankomunitateak hartzen dituen zazpi udalerrietako politikari, elkarte, teknikari eta herritarren iritziak batzen hasi dira.

Datu-bilketa egiterako orduan, aldagai bi hartuko dituzte kontuan. Alde batetik, datu kuantitatiboak batuko dituzte: biztanleria, enplegua, ekonomia-ehuna, erakunde egitura e.a. Bestetik, esparru ezberdinei buruzko (kultura, hezkuntza, osasuna, hiri-gintza e.a.) datu kualitatiboak lortu gura dituzte, bizilagunen esperientziak, jakintzak eta sentsazioak.

Hori guztia lortzeko, hainbat tresna erabiliko dituzte. Otsailaren 16an eta 20an

adibidez, lan-bilerak egin zituzten Sopolako Kultur Etxean herrietako elkarte eta eragileakaz. Gainera, *Berdintasun kontseilua* osatuko dute Uribe Kostako emakume elkarteen ordezkariekaz. Horrez gain, norberaren ikuspuntua eman gura duenak, elkarrizketa bati erantzuteko aukera ere badu. Hori guztia, Plana osatzeko bereziki

«Zirriborroa topaketa batean adostuko dute, onartu aurretik»

prestatutako web orrian aurki daiteke.

Behin diagnostikoa osatuta, ondorioak atera eta behin-behineko zirriborroa egingo dute. Azken hori, topaketa batean onartuko da erakundeetara bidali baino lehen. Dena ondo badoa, 2011ko lehenengo hiruhilekoan aurkeztuko dute Plana. o

Informazio gehiago:
www.berdintasuneko-plana/uribekosta
uribekosta@berdintasunekoplana.com
945 14 75 66

tanta.
estetika



BIBRAZIO PLATAFORMA BARRIA
(Berme profesionalagaz)

20 eta 50 euroko bonoak
(10min-ko saioak)



Basagoiti etorbidea 85 (Algorta)
TF: 645 739 780
Zure beharren araberako ordutegia

TURQUESA
C/Bidebarrieta n°2 Junto a metro Las Arenas

94 657 69 17
WWW.NOVIASATURQUESA.COM

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
TF. 94 676 07 15

PLENTZIAN 450.00 EURO KIROL AZPIEGITURARAKO

Plentziako Udalak II. E Planetik jasotako 450.00 euroko diru laguntza herriko kirol azpiegiturak hobetzeko erabiliko du. 100.000 euro itsasadarreko pasealekua eta futbol zelaiaren artean egingo duten skate pistarako izango dira. Herriko frontoiari atxikia aldiz, paddle pista estalia egingo dute; honetarako, 90.000 euro erabiliko dituzte. 35.000 euro, futbol zelaiako argiztapena hobetzeko izango dira. Azkenik, ontzi arinetarako ontzirelekua egingo dute frontoiaren aurrean.

TURISMOAK GORA EGIN DU GORLIZEN 2009AN

Turismoak "gorakada" izan duela ondorioztatu du Gorlizko Turismo Bulegoak 2009ko datuak ikusita. Izan ere, krisi egoera izan arren, Turismo Bulegora gerturatu ziren lagun kopuruak %3,5 egin zuen gora joan den urtean. Bisitarien %69 Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak izan dira, %14,4 Espainiar Estatukoak eta gainontzekoak beste herrialde batzuetakoak. Alojamenenduen okupazioak %10 egin du gora 2009an.

300 METRO KOADROKO ZAHAR-ETXEA BARRIKAN

Otsailaren 3an zabaldu zituen ateak Barrikako Zahar Etxe barriak. Guztira, 300 metro koadro ditu; erabilera aintzeko gela, egondela, kafetegia, bulegoa, komunak, terraza eta lorategiaz gain aisiadidako gunea du, dena solairu bakarrean.

URDULIZ

2013ko maiatzean zabalduko ditu ateak ospitaleak



Santa Marinaren eta Elizaren artean egongo da ospitalea

2013ko maiatza. Hori da, hain zuzen ere, Urdulizen egongo den Uribe Kosta Ospitalea zabalteko eman duten epea. Plentzia, Sopelana, Getxo, Mungia eta Txorierriko bizilagunei emango die zerbitzua eta Gurutzetako Ospitaleak eman behar dituen zerbitzuak %20 murriztea ahalbidetuko du. 78 milioi euro inbertituko dituzte; horietatik, 60 eraikinerako izango dira, eta gainontzekoak, ekipamenduetarako.

Eraikitze lanak apirilean hasiko dira;

36.750 metro koadro izango ditu eta bost solairutan banatuta egongo da. Ospitaleko espezialitate guztiak hartuko ditu, onkologia barne. 216 ohe izango ditu; urtean, 11.450 ospitaleratze eta 70.000 urgentzia hartuko dituela aurreikusi dute. Goi mailako espezializazioa eskatzen duten kasuak soilik bidaliko dituzte Gurutzetara eta Basurtura. Guztira, 800 lanpostu zuzen sortuko ditu ospitaleak; gainera, irakas-kuntza eta ikerketa gunea izango du. ○

Ots. 22 - Mar. 8

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

► **Lumine Motus argazki erakusketa.** Goñi Portalen. Otsailaren 26a arte.

GETXO

► **Ilia Callejaren akuarelak.** Algortako erakustaretoan. Otsailaren 22tik martxoaren 6ra.

BERANGO

► **Alain Garciaren akuarelak.** Berangoetan. Martxoaren 1etik 14ra.

MUSIKA

LEIOA

► **Coque Malla.** Kultur Leioako Auditoriumen. Otsailaren 26an, barikua, 21:00etan. 15 euro.

ERANDIO

► **Blues kontzertu didaktikoa.** Astrabuduko kultur etxean. Otsailaren 27an, 19:30ean. Euro 2.
► **Dantzaldia orkestragaz.** Altagako azoka zaharrean. Otsailaren 28an, 17:30ean.

ANTZERKIA

LEIOA

► **Kafe Huts taldea.** Emakumeak jardunaldia. Kultur Leioan. Martxoaren 4an, 18:30ean.
► **Xabinaitor.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 6an, 20:00etan. 8/10 euro.
► **La omision de la familia Coleman.** Kultur Leioan. Martxoaren 5ean, barikua, 20:30ean. 12 euro.

GETXO

► **Emakumeak eszenan zirkuitua.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Otsailaren 27an, 19:00etan.



2006ko martxo urteera

► Omenaldia

Matrako eguneko ibilaldia martxoaren 6an

Aurten martxoaren 6an izango da Matrako eguna, Joseba Sanchez "Matrako" zenaren omenezko eguna. Mendi urteera egingo du Matrako Mendi Taldeak, Gorlizko Astondo hondartzatik hasita, Matrakok gustuko zuen ibilbidetik. Gaztelutxo eta itsasargia igaro ondoren, Ermua mendiko tontorra joko dute, ondoren Armintzara jaisteko. Bertan egingo dute indaba jana Matrakoren lagunek eta senideek, urtero legez. Matrako 2004an hil zen minbiziak jota. Haren omenez sortu zuten mendi taldea bere lagunek, baita Plentzian gertuko mendi talde bat izateko beharrari erantzuteko ere. Mendi urteez gain, Matrakoren omenezko jaialdiak ere antolatu dituzte.

• **Non:** Gorliztik Armintzara • **Noiz:** Martxoak 6, zapatua

► **Eta zer? Haur antzerkia.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Otsailaren 28an, 18:00etan.
► **Xabinaitor.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 6an, 20:00etan. 8/10 euro.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Umeentzako zinema.** Ludotekan. Otsailaren 26an, 17:30ean.

GETXO

► **Vicky bikingoa.** Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. Martxoaren 7an, 12:00etan eta 17:00etan. 2,10 euro.

URDULIZ

► **Tiana y el sapo.** Kultur Etxean. Otsailaren 27an, 18:30ean. 2,5 euro.

BERANGO

► **Zine Forum Berango Gauan.** Gazteleku. Martxoaren 5ean, 20:00etan.

LEIOA

► **Haur zinea.** Kultur Leioan. Martxoaren 6an eta 7an, 17:30ean.

BESTEAK

GETXO

► **Argazkilaritza tailerra.** Sendik antolatuta. San Nikolas ikastolan. Otsailaren 22an eta 24an, 18:30ean.
► **Eski-asteburua Somporten.** Sendik antolatuta. Martxoaren 5etik 7ra. Izen ematea otsailaren 24ra arte.

GORLIZ

► **Ludoteka: ikastaroak.** Kultur etxean. Otsailaren 23an eta 25ean, 17:00etatik 19:00etara.

PLENTZIA

► **Brodatu tailerra.** Ludotekan. Otsailaren 24an, 16:30ean.

LEIOA

► **Leihoseh aholkularitza zerbitzua.** Aterpen. Otsailaren 25ean, 18:00etatik 20:00etara.

SOPELANA

► **Topaketa animalistak.** Plaza Beltza kultur gunean. Otsailaren 25ean, 19:30ean.
► **Aquamaraioia.** Udal-igerilekuan. Otsailaren 26an, barikua, 20:00etatik 22:00etara.

ERANDIO

► **Aholkularitza sexologikoa.** Gazte Informazio Bulegoan. Martxoaren 5ean.

BERANGO

► **Bideotuning ikastaroa.** Gazteleku. Martxoaren 6an.

LEMOIZ

► **KZgunea.** Ikastaro barriak abiatu dituzte.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



Aintza eta aintza!

Baserriz baseri ibili ziren Getxon zenbait lagun, otsailaren 4an Santa Ageda bezperan. Algortako Bertsolari Eskolak (ALBE) eta Lauaxeta AEK euskaltegiak bigarren urtez antolatu zuten ibilalditxoa eta talde polita batu zen ohiturari eusteko, egunerako propio asmatutako abestia eta guzti. Baserrietako andra-gizonak historia bizia dira; argi ikusi zen hori gogora ekarritako pasadizoetan. Hori bai ordainsaria!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Bizkaitarrak Saharan

1980an

Hona hemen argazki bitxia. Mendebaldeko Saharan hondoak jo zuen arrantza-ontzia da. Baina arretaz begiratu gero, bizkaitar matrikula deroala ikus dezakegu. 1980koa da irudia eta Euskadi-Sahara Koordinadorak aurtan atera egutegian topatu dugu, urtarrileko hilabetean kokatuta. Otsailaren akabuan, gainera, herrialde hartara abiatu da elkartasun karabana Euskal Herritik. Urtero egin ohi dute jakiak eta behar-beharrezko produktuak eroateko. Zehazki, Tindouf-eko (Argelia) errefuxiatuen kanpamentuetarantz abiatu zen hilaren 20an. Elkartasun taldeek ohartarazi dutenez, errefuxiatuek kanpo laguntzaren beharra daukate bizirauteko.

APASD elkartea

[sakonean]

Koska Irratiko *Munduko Sustraiak* saioak emon zigun Jose Luis Mezo Ugarte, Mezo Bigarrena edota “El Vasco” legez Amerika aldean (batez ere Argentina, Uruguai eta Brasilen) ezaguna, maitatua izandako kantautore algortarraren barri. Irratsaioko esatari Iñaki Legarreta eta Fakun Aznares hasi ziren gurean, bere herrian, tamalez ezezaguna den musikari eta kantagilearen arrastoaren atzetik, eta saiorako Fabian Cabrera -Mezo Bigarrena zenaren biografia eta dokumentala prestatzen dabil- kantautorea elkarrizketatu zuten. Herriak ezagun dezan eta haren kanta gordin bezain ederrak goza ditzan, itsasoz bestaldean bere eragina, arrastoa utzi zuen kantari inkonformista aurkeztu, gureratu gura izan dugu.

Mezo Bigarrena

Galdu genuenagaz elkartzuz, akordura

Testua: **I. Sagarminaga**

Umezaro eta gaztaroa Algortan bizi izan zituen Mezo Bigarrena edo Ameriketako hainbat lekutan “El Vasco” izengoitiaz ezagutzen zuten Jose Luis Mezo Ugartek (Algorta 1951-07-22, Buenos Aires 1993-01-22). Ume zala gurasoak Venezuelara joan ziren, garai hartan oso ohikoa, bestelako etorkizunaren bila, Mezo txikia herrian senitartekoakaz utzita. Haur-gaztetan haren lagun izandako Patxi Ametzagak esan digunez -ik. 33. orria- garai hartakoa da Mezo Bigarrenari “gaizto, borrokazale, pirata” itxura emoten zion aurpegiko orbain luzea. 18-20 urtegar abiatu ei zen mundua helburu eta besteak beste Londres eta Eskozia (Ingalaterra), Suedia, Uruguai, Venezuela, Txile, Brasil eta Argentina izan zituen bizileku. Musikatik eta kantuetatik irabazi ez zituen sosak lortzeko ogibide andana izan zituen: peoi, langile, saltzaile, petrolio-plataformatan e.a. Eta ibiltari bizi-moduagatik zein munduko herri kulturei zien abegitasunagatik 8 hizkuntzatik gora zekizkiela diote lagunek.

Bere heriotzaren 10. urteurrenan, Ina

Godoy kazetariak *Página 12* egunkari argentinarren gehigarriko “Vasco Viejo” artikulua idatzi zuen, kantagile eta abeslari euskaldun ibiltariak ezagutzen ziren gorabeherak laburbilduz. Godoyk dioenez, ezagutu zuten lagun, maitale eta ogibide kideek kontatzen dutenez, Londresen etxe okupatuetan bizi izan zen, eta halako batean Sid Vicious (Sex Pistols) baxu jotzailea edota Joaquin Sabina kantagile espainiarra ezagutu zituen. Esamesen arabera, “droga


“Munduko bidaide, Ameriketako hainbat musikari ezagunegaz harremana eta lankidetzaz izan zuen”

kontuak” medio espetxean egon zen eta Ingalaterratik ihes egin zuen.

Ameriketarako bidea hartuta, Bolivian gerrillariakaz ibili zela diote eta Brasilen Chico Buarque eta Milton Nascimento musikari entzutetsuen lagun eta taldekide. Emakumeak maitemintzeko erraztasuna berezkoa zuela esaten dute, behin esan ei zuela Sabinak berari letrak lapurtzen ziz-

kiola eta berak hari andrazkoak. 1985 alde-ra maitasunak eroan zuen Brasiletik Buenos Airesera, Patricia Somoza idazlearen eskutik; eta Argentinan eman zituen bizitzako azken 8 urteak. Zoroaren egunean jaio zela, eta zoroaren egunean hilko zela esaten zuela gogoratzen dute lagunek (22 zenbakia ei da taroteko kartetan Zoroari dago-kiona), eta halako egun batez 1993an Buenos Aireseko Palermo baso-parkean aurkitu zuten urkatutako bere gorpua, bere bi-

garren diskoa argitaratzeko puntuan zegoela. Ezagutu zutenek diotenez “alde ilunak” erakartzen zuen, bizi zuen garai, mundu eta gizarte itxuratiak nazkatzen, iraganeko hainbat kontu ezezagunek beti jarraitzen zutela sentitzen zuela, pertsekuzio-paranoia izan zuela bidaide... Eta musikak argi zezakeela zirudienean, erabaki zuela bere buruaz beste egitea.



“Bizitzaren bidaia”

Ayer por la mañana era un niño
jugando a la orilla del mar,
soñando con viajes, con el infinito,
con el más allá
con un barco de vela de bandera negra
por el mar caribe defendiendo al débil,
matando al traidor.

Con mi cara de malo, mi espada de
palo.
Mi musa encantada, mi hada madrina,
mi rumbo triunfal.

Chin chan chin chan ya murió un tirano
con mi espada clavada en su corazón
Ta ra ra ri la princesa cautiva
cuelga de mi brazo... el final feliz

Y en el mediodía ya a mi me dolía mi
sueño en una armonía de jazz

Ya no veo tan claro al bueno y al malo
a veces me parece igual

En mi barco varado en costa lejana,
limpio los cañones ya medio oxidados
de agua del mar.

Y me lavo la herida en mi alma dolorida,
sin sueños en frente, midiendo mis
fuerzas con la realidad.

Hoy voy a ver si mi cuerpo resiste los
embates dementes de la soledad
Y el amor es juego de plebeyos que
buscamos ardientes como triunfar.

Mañana por la noche
el misterio me habra abandonado al fin
Los errores y aciertos seran
una mano de firme apretar.

A todos los piratas que con cicatrices
construyen la aurora

el día que el mundo nos deje de ahogar,
en el cuarto de arriba los muertos y
vivos, todos reunidos en sana locura
vamos a cantar:

*Ikusiot nire herria askatuta
helburuak beteta, jokatzan beti aurrera
izango naz nahiz bizirik nahiz hilde
haizean argi bat beti piztuta*

Informazio gehiago

- Ina Godoyren artikulua: www.pagina12.com.ar/diario/suplementos/radar/9-952-2003-09-26.html
- Diskoak: www.taringa.net/posts/musica/2288080/Discografia-Completa-de-Mezo-Bigarrena
- Fabian Cabrera Mezo Bigarrenaren biografia idazten dabil eta dokumentala grabatzeko asmoa du, zati bat Algortan (Mezo ezagutu zutenak gugaz harremanetan ipin daitezke).

Bere obra, disko bi

Hil zela jakin zuenean Sabinak “Flores en la tumba de un vasquito” (Sabinak eta Fito Paezek grabatutako *Enemigos Intimos* diskoan aurki daiteke, espainiarraren *Diario de un Peaton* lanean ere) kanta sortu zuen Mezo Bigarrenari eskainia. Halere, Hego Ameriketako hainbat talderengan izan zuen eragina “El Vasco”k -haren letrak abesten di-

rrizketak eta bestelakoak batere maite, “musika musikagatik” horrekiko maitasunagatik sortu behar dela sinesten zuen horietakoa zela, eta horrekiko koherente jokatu zuela beti. Askorentzat musikarientzako musikari izan zen, kantugile, kultuzko sortzaile, *outsider*... Diskoa hil zituzten Jokin eta Espe militante euskaldunei eta Maiatzeko Plazako ama-amamei eskaini zien Mezo.

“Bi disko kaleratu zituen *Viaje de vida* (Emi, 1990) eta *Avion* (Sony, 1993) zendu ostean plazaratua”

tuzte askok eta askok- eta haimaka musikari ezagunegaz harremana, besteak beste: aipatutako brasildarrak, Hugo eta Osvaldo Fattoruso uruguaiarrak, Silvio Rodriguez, Pedro Conde (La Barraca), Luca Prodan, Juan Carlos Baglietto argentinarrek e.a.

Zaleen esanetan, Mezo Bigarrenari aintzatespen handiena azken musikari horrek egin dio, euskaldunak idatzitako IHESaren gaineko “La rosa fantasma” kanta salatzailea, munduko edozein bazterreko auzuneri begirako “En este barrio” eta Rosario hiriarri eskainitako “Adoquines en tu cielo, Rosario” maitasun kanta egokitu eta ezagun egin zituelako. Lehenengo kantu bi horiek Emi-Odeon disketxe entzutetsuagaz grabatutako *Viaje de vida/Bizitzaren bidaia* (1990) diskoan argitaratu zituen Mezo. Abesti horiez gainera, zaleek oso gustuko eta aipagarritzat

Bigarren diskoa, *Avion* (1993) Sony Music zigilu ezagunak kaleratu zuen bera hil eta gitxira. Diotenez, nahiko haserre ei zegoen disketxeko arduradunakaz, argitaratze data eta bere asmo batzuk bete gura izan ez zituztelako. Izan ere, kantugile bohemiok diskoaren azala bere sexu-organoei irudikatutako beteurrekodun sudurluzea izatea gura ei zuen, ostera Sonykoek hilostean, ironia nahiko zikin batez, zuhaitz baten irudia ipini zuten. Lan horretako kanten artean aipagarriak dira lehen azaldutako “Adoquines en tu cielo, Rosario”, “Nunca digas nunca”, “Hoy no quiero”, “Jose Albañil”, Ameriketako konkista salatzen duen “Los otros quinientos (millones)”, eta “Galdu dutenekin”. Azken kantu horretako letrak Mezoren izaera azaltzen duela diote ezagutu zutenek, hala dio: “Galdu dutenekin

“Kantagilea, hainbat estilo nahastu zituen; letra gordinak, zintzoak zein mingarriak, malenkoniatsuak...”

dituzte lan horretako “El rock de siempre”, “Viaje de vida”, edota musika merkatuaren legetara egokitzen edo saltzen zutenen aurkako “Yuppies”. “El Vasco”-k bere musika “merkaturatzeak” ekar diezaiokeen arrakastaren aurrean bere burua ez saltzeko jarrera irmoa izan zuela diote ezagutu zutenek, ez zituela aurkezpen pentsa-aurrekoak, alka-

elkartuko naiz, baina ez, sekula ez, jokatu ez duenarekin...”.

Bere garairako zelanbaiteko aitzindari, hainbat musika estilo (bossa nova, chacarera-k, rocka) nahastu zituen kantaurea izan zen, bere letrak bizitza bezain gordinak, errealitatea bezain zintzoak zein mingarriak, malenkoniatsuak... ○

Patxi Ametzaga > Mezoren gaztetako laguna

“XX. mendeko Iparragirre bat izan da; koblakari, abeslari, euskaldun, Ameriketetan...”



Mezogaz lagun talde berean ibili zen, gero Londresen eta Stockholmen ere

—Zelan ezagutu zenuen Mezo?

—Alkarregaz ikasi genuen, Getxo I zabaldu barritan; beste lekuetan ere, ohiko errepikatzaileak izan baikin; lagun talde berean genbiltzan. Frankismo garaia, giro zapaltzaile hartatik askatu guran genbiltzan; beti atzerrira bidaiatzeagaz ametsetan! Txoposen batzen ginen, eta musika izugarri interesatzen zitzaigun. Altua zen, seme bakarra, eta aurpegian orbain handia zuten. Algortan bizi ziren gurasoek migratu egin zuten, nahiko ohikoa zen, Venezuelara; bera izeko-osabagaz lotuz. Kontatzen zuenez, ebakiondoa horiekaz bizi zela sehaskatik jausi zenekoa zen. Betiko bereizgarria izango zuen; gaizto itxura emongo zuen beti! Bere izaerak ez zuen hala izan behar, baina orbainak, haren altuerak, dotatua izateak, hala pentsaraztera zeramatzan, ebakiondoa liskar batekoa... “Zure benetako izaera izatera zaramatzen iragarpena” izan liteke. Algortako beste bategaz, Joselu, duoa osatu zuen, Beatles-en kantak abestu... 21 urte noiz bete zain

geunden, soldadutzarena konpondu, pasaporte lortu eta alde egin ahal izateko. 21 urte baino apur bat lehenago urten zuen AEBetara.

—Londres ere alkarregaz?

—Antonio Machado Kultur Zentroaren inguruan ibili ginen; Francoren kontra azpijokoan... (Joaquin) Sabina ere egoten zen. Hura ere, Mezo legez, soldadutza ez egitearren, ihes egindakoa. Sabinak ez zekien jotzen, oso txarto jotzen zuen, Mezo eta besteakaz ibili zen ikasten... Azpijoko giro hartan, inor ez zen larregi fio beragaz, Sabina guardia zibilen semea, polizia sekretu baten anaia... Baina, ondo konpontzen ginen. Suedian lanean nengoela ere metroan jotzen aurkitu nuen.

—Londresen Sid Vicious (Sex Pistols) ezagutu zuela diote.

—Batetik bestera, ahal zen moduan bizi ginen, squatters-etan (etxe okupatuak) bizi... “Jende arraroagaz” alkaritzen ginen, gero, oso ezagunak zirenak! Sabina, kasu. Vicious ez dakit, haren lagun on bat bai.

—Eta Suedian barriro alkar topatu.

—Stockholm-en, itzela egin zuena! Hiri txukunegia, aratzegia zen. Txiki Otaegirena gertatu zenekoa zen, manifestazioaren bezperan hiri ia osoko hormak graffitiakaz estali zituen! Irain latza zen suediarrentzat! Gero bere arrastoa galdu nuen; noizbait herrira itzuli ei zen, jakin nuen lotzeko oztopoak izan zituela, soldadutza kontuagatik, pasaporteagatik ere. Hil ostean, Argentinan egon nintzanean ez ei zuten ezagutzen, baina jakin badakit eragina izan zuela. Zelanbait, XX. mendeko Iparragirre bat izan da; koblakari, abeslari, euskalduna, “El Vasco” edo “vasquito” deitzen zioten, guretzat “Joselu” zen.

“Gaztetatik, berarentzat 40 urte betetzea muga zen, hortik aurrerakoa amildegia...”

—Alde iluna kontagai esamesek: droga kontuak, Londresen espetxealdia, ihes egitea, geroztiko pertsekuzio-paranoia...

—Ez dakit. Ez dut uste droga negozioetan ibili zenik; bere izaera ez zen halakoa, ezagutu nuen bitartean ez zen drogazalea izan. Baina bizitzak... Garai hartan Hegoaldeko bisak behar genituen Ingalaterrarako, lan egiteko, eta berak... Eta dakidana da andrazkoak arrakasta itzela zuela, Sabinak beste edo... Zergatik halako arrakasta? Hori bai misterioa.

—Besterik ba al duzu akorduan?

—Nerabazaroko ohiko eztabaida bat: “zela-koak izango gara nagusitzean? 40 urteagaz?”. Berarentzat 40 urte betetzea muga lakoa zen, hortik aurrera ezer ez balego legez, amildegia baino... Eta zelanbait horrela bizi izan zen, ez zuen sekula nagusi izatea “lortu”, halabeharrez izan zen aita, menturaz bidaiari... Horiek nire ondorioak baino ez dira, beste arrazoirik egon liteke; baina 41 urteagaz hil zen.



Argiaren erritmora

Argiaren erritmora mugitzen dira *Lumine motus* elkarteko lagunak. Argazkilari profesionalak zein zaleak batzen dira: Deo Villasante, Aitor Peña Inclan, Juan Angel Regaña, Mikel Cantalapiedra, Joseba Rodriguez eta Alex Conceiro. Argia ondo baino hobeto menperatzen dute eta horrek edozein unetan indar handiko argazkiak lortzeko aukera ematen die. Ikusi besterik ez dago, UK-ko 170 ale honetarako bildutako irudietan zeruek duten indarra. Argi izpiek esaten dute nolakoa izan behar den hodeia.

Argazkiak: **Lumine Motus**











BETIKO

IKASTOLA

**GURE GAURKO
ETA BETIKO
IKASTOLA**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Leioako Ikastolen Elkartearen ikastola bakarra.



Ikastolen Elkartea

Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAURKO



**GIZONENTZAKO
MODA**

Telletxe 3
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Ikus-entzunezko barriak

Euskal lanak ikusgai hilaren 22tik 27ra

Gasteizko **Zinemastea v.2** jardunaldietan



Aitzol Aramaioen *Un poco de chocolate* filma emango dute besteak beste

Krea Adierazpen Garaikidea baliabideen zentroak antolatuta Zinemastea v.2 topaketak edo jardunaldiak izango dira hilaren 22tik 27ra Gasteizen. “Ikus-entzunezkoak osotasunean ulertzeko modu barriak partekatu eta haiei buruz (gidoietatik hasi, ekoizpena, errealizazioa eta banaketaraino) hausnarketa egitea” da ekimenaren helburua, edo bestela esanda, prozesu horretan parte hartzen duten “hizkuntza eta formatu digital barriak, ikus-entzunezkoek bestelako diziplina artistikoakaz duten lotura aztertzen duten proposamenak, topaketak eta gazteei begirako lantegiak eta sorkuntza garaikideen aldeko laguntza, (bereziki, Euskadin egindako lanari erreparatuz)” aztertzea edota horien inguruko gogoeta egitea. Hala, Zinemastea v.2- k ikus-entzunezkoen alorreko azken joerak ezagutzeko aukera eskaintzen du, eta horren albotik, sorkuntza eta prestakuntza dira lan ildo nagusietako bi. Horretarako, besteak beste “Gaur egungo zineak eskaintzen dituen aukerak”

lantegia (Nacho Vigalondo zuzendariak emango du) edota Gazteentzako ikus-entzunezko lantegia eskainiko dituzte. Bestelako hitzaldi eta mahainguruez gainera, aurten, euskal (Euskal Herrian egindakoak, edo/ala euskaraz direlako) ekoizpenei arreta berezia eskainiko die ekimenak eta besteak beste, hurrengo lanen emanaldiak (sarrera 3 euro) egingo

«Lantegiak, hitzaldiak, mahainguruak eta euskal ekoizpenei (hainbat filmen emanaldia) arreta berezia»

dira Vital Kutxa Fundazioaren Aretoan (Bake kalea 5): *Sukalde kontuak* (hilak 22), *Animal Chanel* (haurrei begirakoa; hilak 23), *Grabatzen* (hilak 23), *Pagafantas* (hilak 23), *Igelak & Zapoak* (hilak 24), *La maquina de pintar nubes* (hilak 24), *Pluk eta bere garabia* (hilak 25), *Kimuak09* (film laburrak; hilak 25), *Zorion perfektua* (hilak 26) *Checkpoint Rock* (hilak 26) eta *Ori* (hilak 27). ○

Informazio gehiago: www.kreared.com

NUN taldea > disko aurkezpena eta hurrengora arte!

“*Agur esateko zazpi modu* deituko da diskoa, ez dugu aurkeztuko; kontzertu bakarra, eta gero, akabo!”



Nun dira: Aitziber Omagogesakoa (ahotsa), Eneko Burzako (gitarra), Alvaro Barriuso (gitarra), Xabier Doncel (baxua), Claudio Pavan (bateria). Informazio gehiago: www.nunsarean.com

—*Nun* maketa (2002) eta *Collage* (2006) lehenengo diskoaren artean taldearen musika estiloan aldaketa nabarmenak antzeman daitezke; estiloa poparen eta hardcorearen artekoa ei da, berbek amorrua eta desesperazioa, melodia gozoakaz kontrastean agertzen diren sentimenduak azaltzen dituzte; maketako disonantziak alde batera utzita... Baina *Collage* ere ez zen hardcore, ez pop, ez rock. “*Garai batean emoretik gertu ginen, orain popzaleagoak gara*” zenioten aurkezpenean. Bigarren, azken, lan hau zelan definituko zenukete?

—*Agur esateko zazpi modu* deituko da. Zazpi abesti dira eta Ondarroako Santos Estudioetan grabatuak 2010eko lehen asteburuan, elur artean. Ez dugu diskoa aurkeztuko: kontzertu bakarra izango da, gero, akabo. Edizio oso mugatua eta berezia izango da, kontzertura etorriko diren artean banatuko duguna. Bagenekien taldea utziko genuela eta ez diogu buelta gehiago eman gura edizioaren kontuari. Gura duenak eskuragarri izango du webgunean, orain arte egin legez. Denbora asko igaro da *Collage* atera zenetik eta bitartean gertatu

zaizkigunak islatzen dira abesti barrietan: zuriak, beltzak, grisak, kolore ezberdinak... —Horregaz batera, “adiorik ez” baina... —Eneko bere aldetik dabil MobyDickegaz eta taldeak eman behar zuen guztia emanda zuela zirudien. NUNen garaia agortzen ari zen, gero eta zailagoa zitzaigun estiloari eta erritmoari jarraitzea. Besteok ere beste motibazio bat behar genuen, onena zerotik

«Ez dakigu inoiz barriro elkarregaz joko dugun, baina ez da Nun izango»

hastea dela uste dugu. Ez dakigu denborak nondik eroango gaituen, noizbait elkarregaz joko dugun barriro, baina ziur ez dela Nun izango. Beste zer edo zer izango da. —Aurkezpena eta agurra batera; kontzertu bakarrean: martxoaren 6an Zehatz elkartean (Gorliz). —Esan legez, ez dugu hau luzatu gura. Motibazioa ez datorkigu NUNen bidetik, baina 8 urte elkarregaz egon ostean, jai berezia merezi genuela uste genuen. Taldea Zehatzen sortu zen eta lagun asko ditugu han, taldearen historiaren parte oso garrantzitsua da, ez da oso handia eta ederto pasako dugu, ziur. Oraindik ez dugu gauza handirik prestatu eta ez dut uste alderdi musikalean sorpresarik egongo denik. Jai ahaztezina izango da, hori bai... ○

diskoak

Urte barriko kontzertua
Vienako Filarmonikoa
Decca Music Group



Urte barrian Vienako Orkestra Filarmonikoak Georges Pretreren gidaritzapean eskainitako kontzertua dakarkigu Decca Music Groupek. Strauss sendiaren errepertorioan aditua da Pretre, eta urtero legez, ohiko polkak eta balsak zuzendu ditu aurten, baita zenbait nobedade ere. Elkar dendetan eskura daiteke, besteak beste.

B. Whitfield eta Petti
Petti eta B. Whitfield
Gaztelupeko hotzak



AEBtako Barence Whitfield, Petti nafarra eta The Bloody hotzak (Joseba Irazoki, Iñaki Guantxe eta Beñat Irureta) elkartu dira rock and rolla egiteko. Udan grabatu zituzten hamar abestiak. Ahotsak uluka, gitarra zorrotzak eta erritmo sendoak Pettiren kantuaren; tempo ertainak, folk akustikoa eta ahots gozoa Whitfieldenatan.

Gauaren zaindaria
Potemkin
Boriberenea ekintzak



Urte biko atsedendialdiaren ostean hemen dira gipuzkoarrak, bigarren lanagaz. Ziurtatu dutenez, “korazatuak sokak askatu ditu eta imo doa nabigatzen rockaren itsasoetan”. Rocka dario taldeari eta jarrera, energia eta gustu aparta isurtzen ei dute. Inoiz baino sendo, zirikatzaile, boteretsu, mehatxari eta probokatzaileago datoz.

etorri
eta
ikusii!!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Bibal Nerea batega bat)
Tf. 94 430 00 00
Algorita

Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Etxera
eroango dizugu
gasoleoa

Txartel hau aurkezten
baduzu 3 euroko
deskontua edukiko duzu
zure erosketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00

I

**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES eta TAGHELER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telebte 1 Tf. 94 460 27 41

Algorita

[liburuak]


Historikoa, baltza eta gorria Gatazkak Luther Blissett kolektiboaren Q nobela argitaratu du euskaraz

Ekoizpen Galduak zigilupean eta *Noor Daki* euskaratzaile ezizenagaz aurkeztu du Gatazka Kolektiboak Q nobela (20 euro; sarean doan). Luther Blissett ekimen edo kolektiboak argitaratu zuen orain 11 urte italiaraz 750 orrialdetik gorako Q nobela, ordutik ia 15 hizkuntzatarara itzuli da. 1994an sortutako Luther Blissett izenpean egiletza kolektiboa babesten da, Europako eta AEBetako ideologia askotako idazle, sortzaile, ekintzaile eta intelektual andanak erabili izan du; 1999 aldera taldeak "bere buruaz beste" egin eta ordutik Wu Ming -"izenik ez" mandarinez- izena hartu zuten. Halere, zehazki nobela hau idatziz osatu zuten Luther Blissett kolektiboaren atzean Federico Guglielmi, Giovanni Cattabriga, Luca Di Meo eta Roberto Bui italiarrak daude.

«Matxinadarako eskubidea aldarrikatu eta aginte ahalguztiduna auzitan ipini»

tiboaren atzean Federico Guglielmi, Giovanni Cattabriga, Luca Di Meo eta Roberto Bui italiarrak daude.

Kritikari askorentzat maisulana den lana nobela historikoaren sailean kokatu dute, nobela beltzetik ere badu, abenturazkoa, *thriller*-a ere bada, eta badira saikeran ere sailkatu dutenak. XVI. mendean girotuta dago, 1517. urtea eta Alemania ditu abiapuntu, eta protagonistak 30



Q nobela 1999an argitaratu zen italiaraz

urtetan zehar bizitakoak eta orduko Europa deskribagai: Martin Luteroren erreforma, protestantismoa, Elizaren hierarkia akabatze proposamena, matxinadak, kontraerreforma kristaua, erlijio gatazkak, "Jainkoaren izenean" egingako gerrak eta jazarpena, sistema ekonomikoaren kontrako altxamenduak... Protagonisten artean espioiak, kardinalak, iheslariak, inkisidoreak, nekazari matxinoak e.a. Adituen esanetan, aginte ahalguztidunaren erudia auzitan ipini, interes politikoen gaineko gogoeta eta batez ere matxinadarako eskubidea aldarrikatzen ditu. ○

Informazio gehiago: www.ddtgatazka.com

liburuak



Basamortua
J.M. Gustave Le Clezio
Elkar

2008ko Nobel sariduna da Le Clezio; Luis Berrizbeitiak, idazlearen eleberritxalotuena itzuli du. Kulturen arteko talkaren inguruan berba egiten digu autoreak, ahoan bilorik barik. Zibilizazio, garapen eta aurrerakuntza kontzeptuak zorrotz kritikatzeko dituen istorioa da.



Komikiaren gida
Joaquin Reyes
Krea Kultur Zentroa

Joaquin Reyes ilustratzaile, diseinatzaile grafiko eta umoristak plazaratu du sortzaile hasiberri zuzendutako eskuliburu, Gasteizko Krea kultur zentroagaz batera. Hizkuntza argi eta aruntagaz komikia gazteei hurreratu gura die.

[kirola]

Jon Santacana > eskiatzaile paralinpiarra
"Vancouurreko Jokoetarako 5 diziplinetan
domina lortzea da gure dema"



Jon Santacana. Informazio gehiago: www.esquia2.com

Bartzelonan bizi bada ere, 10-18 urte artean Algotan bizi izan zen Jon Santacana (Donostia, 1980) eskiatzailea, egun guraso-ai bisitan etortzen zaie herrira, eta surf egitera. Ostera, eskiak dio bihotzean eta lanbidean agintzen, "ikusmen arazoa diagnostikatu zidaten garaian hasi nintzen eskiatzen, 10 urteagaz; eski tradizioa bazegoen gurean, aiti-tek -Antonio Maiztegi- txapelketetan ere jardun zuen, eskiak eurek egin eta mendia oinez igo behar zutelako kontatzen du". Bere kabuz ikasi zuen, "izekoren lehen zertzeladak; eta gero, kolpe asko jasoz!". Ahalegin-ekin txapelketa nagusietaraino eroan dute, B2 alorrean dihardu, %5eko ikusmen-hondarra baitauka, eta Miguel Galindo gidariagaz ibili ohi da, "8 denboraldi daroagu alkarregaz, nik bere bidea jarraitzen dut ia milimetrora; ikusmenagaz jaso ezina, lehiaketetan abiadura eta handigoak direnez, bere ahotsaren bidez jasotzen dut igorgailuetatik; rallyetako gidari-kopilotua legez". Lortutakoen artean daude: Munduko txapeldun eslalomean (Suitza, 2000), Salt Lake Cityko Paralinpiar Jokoe-tan (2002) 2 urrezko domina eta brontzezkoa (eslalom erraldoi, super-erraldoi eta jaitziera); Munduko Kopako (2004/05) txapeldun, Europar Kopako (2006/07) sailka-

pen nagusi, erraldoi eta eslalomeko txapeldun, Munduko txapeldun (Korea, 2009), lehen euskalduna Munduko Kopako (Kanada, 2009) Kristal Globo lortzen (urreak super-konbinatu, super-erraldoi eta erraldoi-ian, zilarra eslalomean, brontzea jaitziera) eta berriki Munduko Kopan 7 domina Austriar (zilarra; 2 brontze) eta Italian (urrea, zilarra, 2 brontze). Halere, zoritxarrak ere jo zuen Turingo Joko Paralinpiarretarako pres-

«Urritasunen bat dutenak ez dira atzean lotu behar, pres-takuntza gero eta hobea da»

tatzen zebilela (2006), ostera burugogor, esfortzu handiz apurtutako berna-hezurra eta peronea tarte laburrean osatu, eta parte hartzea lortu zuen. Sasoi beteare dago orain, Vancouverko Joko Paralinpiarretako (martxoa) demarako: "5 diziplinetan dominak lortzea; zaila da, ehuneko txikitik baitabil lehia; baina baikorrak gara!". Hasiberri esan gura izan die: "beldur-erreparoa bada; ostera irristaketa kirolak legez eskia oso asegarria da: sentsazioak, natura... Urritasunen bat dutenak ez dira atzean lotu behar, gero eta prestatuago daude pistak, eskolak etab. Probatzean, aurrera pausoa emotean datza gako". ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANAKA
KIDOL MODA



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / Tf. 94 491 18 81

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 - ALGORTA

Begoña Zubieta > kazetaria

“Mekanika baten torloju bat naiz, eta hau pasatzen denean, kalera bueltatuko naiz”

Bere erreportaje bereziek egin zuten ezagun Begoña Zubieta, baina azkenaldian ez du gu ikusi ETBko kameran aurrean. Izan ere, gaueko albistegietako arduradun dabil urritik telebista kate horretan. Ohorezko bilbotar izendatu zuten iazko Aste Nagusian, erreportajeak hiriko baloreak zabaltzeagatik. Baina Areetan hazi zen eta Algortan bizi da aspaldi; bertakotzat dauka bere burua.



Basagoiti etorbideko bere etxean hartu gaitu Zubieta, eta solaserako tartea eskaini

—Kamararen beste aldera igaro zara, gainera aldaketak egon dira ETBn, nola bizi izan dituzu?

—Beno, espero bako aldaketa izan da, aldaketa politikoa esan gura dut. Guztiontzako sorpresa izan zen, gero buru barriak etorri dira. Jendea mantendu zen hasieran, baina alderdi guztiek egingo luketen bezala, handik pare bat hilera aldaketa txiki bat egon zen. Barruko jendeak bizi izan du arduragaz, kontratu ahulagoak dituztenek batez ere. Kontratu lotuagoak dituztenek, politikoki kontra batzuk, eta nolabaiteko prebentzioagaz beste batzuk. Baina gero, betiko legez da, euskararen eguna bada, horregaz zabaltzen dugu, eta Egunkariaren epaiketa bada, hori konstatzen da.

—Zure kasuan, lanbidea nahiko desberdina da.

—Bai, baina horrek ematen dit gaitasuna beste aldean kokatzeko eta kazetariak ulertzeko, eta hori ez nuke galdu gura. Nik taldean lan egiten dut, burua naiz gauza batzuk erabakitzen ditudalako, baina besteen lanik barik ez luke ezertarako balioko. Jendea pozik eta estimula-

tuta edukitzeko laguntzen du, gure burua beste aldean kokatzeko enpatia daukagu. Bestalde, kazetari batek gai bat nola jorratu irudikatzen ez badu, nik neuk nola egingo nukeen azaldu ahal diot, hobeto jartzen naiz bere lekuan. —Ikusleagoak, normalean, ez du bereizten kazetari batzuen eta besteen lana. Baina ni ezagutzen naute, nire erreportajeak bereziak direlako, desberdinak.

“ETB barruko batzuek aldaketak arduragaz bizi izan dituzte, beste batzuek politikoki kontra edo prebentzioagaz”

—Ni saiatzen ari naiz lehen mikroespazio horretan egiten nuena orain ere egiten, zeregin barrian. Horretarako ardatzak dira batetik, egia kontatzea edo gertatzen dena kontatzea, eta bestetik, informatibo erreibindikatzaileak egitea. Kontua zera da, herri honetan politizaturata gaude gura edo gura ez, bizitzeko

markatzen gaituen kontua da. Niretzako ardatza itxaropen puntu bat piztea da, merezi duten gauzak daude, eta horretarako, beti parekatu behar da. Nire barrietan hori egiten saiatzen nintzen eta orain ere horretan ari naiz. Gizatasuna izan dezatela gura dut, erreibindikatzaileak zentzu horretan, baita ingurugiroagaz, elkartasuna, ulermena bezalako baloreak izan ditzatela; hori da

ideologia niretzat.

—Erreportaje bitxiak eta desberdinak ziren, kazetaritza egiteko beste modu bat.

—Baina beti mezuagaz.

—Hori da zure ukitu pertsonala?

—Bai.

—Beti ibili zara telebistan?

—Ez, gauza pila bat egin dut. Telebistan aritu nintzen, *El independiente* astekarian hemengo korrespondentsal ondoren, Madrila joan nintzen gero, han prentsan ibili nintzen, Kongresuan ere bi urtez politika egiten, eta hona bueltatu nintzenean, ingurugiro arloko enpresa batean egon nintzen, Eusko Ikaskuntzarako lan egin nuen...

—Kazetaritza arloan beti?

—Bai, beno baina astirik izan ez dudalako. Antzerkia oso gustuko dut, baina ume bi hazi ditut nik bakarrik eta tartirik ez.

—Iazko abuztuan, gainera, Ohorezko bilbotar izendatu zintuzten Aste Nagusian, zure erreportajeak hiriko baloreak zabaltzeagatik.

—Bai, zehazki plakan jartzen du: “*Bere lanagaz Bilboko Aste Nagusia zabaltzeagatik*”. Izugarria izan zen. Zinegotzi

baten bulegotik hots egin zidaten, ez nengoen eta mezua utzi zuten. Prentsaurrekoren batera joateko izango zela uste nuen. Deitu nuen, baina zinegotziak deituko zidala esan zidaten. Harrituta nengoen, ez nekien zer gertatzen zen. Ondoren, astebete libre izan nuen lanean. Nire telefonoa lortu zuten

“Kamararen beste aldean egon izanak gaitasuna ematen dit kazetariaren aldean kokatzeko eta bere ikuspuntua ulertzeko”

eta deitu zidaten beste aste bat igarota. Isabel Sanchez jaietako zinegotzia zela, eta lasaitu nintzen apur bat. Sariaz hitz egiten hasi zitzaidan, nik gaia ezagutzen nuen eta hari buruzko erreportajeren bat egin gura zutela pentsatu nuen, baina hara non esan zidan: “*oraingoan zuri emango dizugu*”. Zur eta lur geratu

nintzen, eta eskerrak Isabel ezagutzen nuen, txantxa bat zela uste bainukeen bestela. Ikaragarria izan zen, sinetsi ezin geratu nintzen, oso pozik.

—Beraz, kamera aurrera itzultzeko asmoa daukazu? Sariak ere lagunduko dute horretarako gogoia pizteko...

—Bai, bai. Kazetari eta erreportari sen-

titzen naiz. Orain ardura honetan nagoela, argi daukat mekanika baten torloju bat naizela eta hau pasatzen denean, kalera bueltatu behar dudala. Oso gustuko dut, pasioa da. Gainera, jende askok, edadekoek batez ere, esan didate ea noiz itzuliko naizen erreportajeak egitera. ○

aldizkaria **etxean**
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonoa.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

Joseba Butron > Gorrondatxe

“Itsasoaren aurrean, bakardadean, beste era batera pentsatzen da”



“Eguraldiak epeltzera egiten duenean, nahiago labarrak baino beherago, ur ertzetik hurrago”

Getxora bizitzera etorri nintzenetik gustuko izan ditut hemengo hainbat txoko, itsasertzeak bereziki. Labarretan, itsasoaren aurrean paratu eta haren handitasunaz gozatzea atsegin dut: begirada itsasoak eta zerumugak bat egiten duten urruntasunean gal dadila, gure txikitutasunaz jabetu, naturaren aldean, itsasoaren ahalmen handiaren aurrean zein ahulak garen jabetu eta hozkirria sentitu. Horregatik, atsegin dut Lagalea aldetik paseoan ibiltzea, eta ahal bada, tartetxo bat hartzea, geldirik, itsasoari begituteko eta pentsamenduetan galtzeko. Bai, izan

ere, itsasoaren aurrean, bakardadean, beste era batera pentsatzen da. Beste era bateko sentipenak ernetzen dira.

Lagalea idatzi dut, izen horri ere behin baino gehiagotan eragin diodalako –filologia ikasi genuen-eta, zer egingo diogu!-. “La” hori ez daukat gaztelaniazko artikulutzat (ez “La Reineta”, ez “La Rhüine”, ez “La Rioja”, ez beste asko bezala).

Ostera, eguraldiak epeltzera egiten duenean, nahiago labarrak baino beherago, ur ertzetik hurrago. Horretarako, ahal izanik, Azkorriko parajeak bilatzen ditut. Eta udaren beroan aukera aparta

da Gorrondatxeko haitz gainetan egon ahal izatea, edo hango harea ilunean eguzkitan etzatea, aratinik, itsasoaren urruma entzuten egon ahal izatea, olatu-joan-etorria, kresalaren usain sarkorra arnastea... Bero egin arren ere, hango brisararen igurtzi atsendengarria opari ederra da, eguzkitan, Diogenesen pare sentitzeko. Hark Alexandro Handiaren eskaintzari erantzun omen ziona erantzuteko lain: “Nahi dudana edozer eskaini nahi didazula? Nahi dudana? Bada, mugi zaitez apurtxo bat, eguzkia kentzen didazu eta!”. ○

Toponimoa > Gorrondatxe

Gorrondatxe (hondartza):

Gorrondoa etxe izenaz eta atx “haitz” hitzaz osatutako izena. Argi dago idazkera egokia Gorrondatx dela, baina -e paragogikoak hartu duen hedadurak zailtzen du izen hori hobestea. Gorrondoa etxeak Berangon daude eta handik dator izena. Hondartzetara joatea modan jartzeak, Bizkaiko hondartzen izenen kontrako “erasoa” ekarri zuen, jendea ez baitzitzaien gehiegi axola izenak ikastea eta bururatzeko zitzaien lehenengoa erabiltzen hasi zen. Ereaga hondartza Neguri edo Las Arenas-eko hondartza bihurtu zen deustuar askorentzat. Kasu honetan, Gorrondatxe eta Solondota/Barinatxe hondartzen artean dagoen Azkorri haitzaren izena nagusitu zen hondartza izendatzeko, baina askotan Gipuzkoako mendi ezagunekiko analogia eginda Aizkorri moduan.

Dando la brasa

Argentina eta Japonia parrilla ukituagaz



Dando la brasa jatetxeko lagunak

Aukera barriakaz arriskatzea gustuko dutenak badaude; betiko zaporeakaz nazkatuta, sentsazio ezezagunak bizi gura dituztenak. Hori da, hain zuzen ere, Nacho Apecetche eta Cesar Escudero *Dando la brasa sonidos restauranteros* jatetxean eskaintzen dutena, originaltasuna oinarri duen aukera barritzailea. Biak argentinarrak dira eta Barrikako Milagros jatetxearen sukaldariak izan dira zazpi urtez. Urtarrilean, euren abentura propioa hasi zuten Makaleta Etorbideko txokoan.

Hegoamerikako eta Japoniako sukaldia nahasten dute *Dando la brasa*-n; izenak esandakoari jarraituz, azken tokea parrillan ematen dute beti. Asia eta Amerikako zaporeak nagusi badira ere, Euskal Herriko lehengaiak erabiltzen dituzte. Antzara-gibel marinatua

soja, jogurta eta arto ogiagaz; shushia parrillan; biera txingarrietan jalapeñoakaz e.a.: “Ez dugu ezer barririk asmatu; gustuko ditugun produktuak hartu eta ukitu pertsonala ematen diegu”. Jendeak ondo erantzun du orain arte: “Gauza barriak probatu eta pozik urtetan dira”.

Sukaldean dituztenez gain, badago Apecetche eta Escuderoentzat oinarritzailea den lehengai: musika. Tangoa, musika elektronikoa... eguenean zein asteburuetan badago horiek entzuteko aukera: “Zuzeneko soinua gustuko dugu, DJak eta musika taldeak”. Egunero zabaltzen dute bazkaltzeko zein afaltzeko. Jantokiaz gain, tabernan sofak dituzte eta bertan kartako aukerak dasta daitezke. ○

Makaleta Etorbidea 31, NEGURI
Tf. 94 430 40 76

ARTAZA ETXEA
JATETXEA

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Etxakina. Gobeia erakinearen aurrean • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

ARTESANA

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA

KONTXI

ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA

GOZOLABEA

GALDARETXE

- Maidagan 35, GETXO Tf. 94 491 11 25
- Mayor 17, AREETA Tf. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67, LEIOA Tf. 94 464 40 58
- Telleche 11, ALGORTA Tf. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9, SOPELA Tf. 94 676 11 01

Turikaldei

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T. 491 14 87 48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Angeraren etorb. 4B (barra, Jata Mendak) T. 460 01 87 48990 GETXO

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

Tf./Fax: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbo@basalbobaserria.com

ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Amiluze z.g. • TLA Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarrí 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozaki eta prentsa, gubi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruin lehorak - Aldizkariak - Licentziarik
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

Usategi kafetegia

Usategi parka z.g.
Algorta
*Tf. erroreak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

<p>URA (Abenduak 21 urtarrilak 19) Erraz gaindituko duzun krisialdian zaude. Horrek eztabaida antzuak eta tentsioak eragingo ditu, batez ere zure bikote-lagunagaz. Osasunak okerrera egingo du; zain zaitez.</p>	<p>OTSOA (Urtarrilak 20 otsailak 18) Engainatzen zaituzte eta laster jakingo duzu. Zure erantzuna azkarra eta erabatekoa izango da eta zure ingurukoak ere harrituko dituzu. Baina egin, egin behar duzu.</p>	<p>ADARRA (Otsailak 19 martxoak 20) Sasoi atsegín eta baikorra bizi duzu. Baina argi ibili; zure izaerak, bizimoduak eta lorpen profesionalak bekaizta piztuko dute zure inguruan. Ez garrantzirik emon; oraingo.</p>
<p>AITZURRA (Martxoak 21 apirilak 19) Lagunek babesa bilatzen dute zugar eta eskuzabalegia zara, baina neka zintezke. Ezbehar sentimentala edo familiarra biziko duzu. Erabili zure berezko indarra egoera gainditzeko.</p>	<p>HOSTOA (Apirilak 20 maiatzak 19) Badatoz barriro ere ezegonkortasun emozionalak eta etsipenak. Besteak ez dira errudunak; hortaz, esaten dituzun hitzak neurtu. Arazoa nogaz duzun haregaz berba egin eta gauzak argitu.</p>	<p>EGUZKIA (Maiatzak 20 ekainak 18) Iraganeko kontu ilun bat barriro azalduko da. Txutxumutxuak hasiko dira, eta eteten ez badituzu, kalte egingo dizute. Atsedena hartu beharko zenuke eta kontuz kirolagaz.</p>
<p>GARIA (Ekainak 19 uztailak 18) Lanean erne ibili utzikeriagatik-edo akatsen bat egin dezakezu eta. Erabakiak hartu behar izango dituzu; ahal izanez gero, atzera itzazu, zure segurtasun ezak aukerarik txarrenera hartzera eroango zaitu bestela.</p>	<p>LASTOA (Uztailak 19 abuztuak 17) Pertsona zuhur bat bere hitzakaz zure izen ona zikintzen saiatuko da; kontuak argi itzazu beragaz. Tentsioak jota zabilta; masaje batzuk hartu beharko zenituzke.</p>	<p>IRATZEA (Abuztuak 18 irailak 16) Zugaz ez dago arrazoiterik, onar ezazu. Zailtasunei aurre egin beharrean, ihes egiten diezu; segurtasun ezak eta beldurrak jota zaude. Aholkuak onartu eta lasaigo biziko zara.</p>
<p>META (Irailak 17 urriak 16) Gauzak ez dira berez konpontzen eta mugitzen ez bazara aukera onak galduko dituzu, batez ere arlo profesionalan. Egin ezazu ahalegin txiki bat.</p>	<p>HAZIA (Urriak 17 azaroak 15) Min egin gura dizute baina ez dute lortuko, zer edozertarako balio du-eta zure lagunen artean duzun izen onak. Osasunari dagokionez, mediku tratamenduagaz bukatuko duzu.</p>	<p>NEGUA (Azaroak 16 abenduak 20) Baikortasuna. Ideia mordoa dituzu eta egia bihurtzeko aukera azalduko da. Halere, prest egon sor daitezkeen eragozpenak gainditzeko. Bestalde, kontrola itzazu zure gastuak.</p>

Koskakideak behar ditugu
irratiaurrera jarrai dezan!!

Izena..... Deiturak..... Herria.....
E-mail..... Telefonoa.....

Kontu zenbakia (20 digito)
□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

**12€ urtean !!
€1 hilean !!**


KOSKA
irratia 108 FM

koskairratia@koskairratia.com
k/ Amezti 6 4.pisua 2. dep.
Algorta (Bizkaia)
www.koskairratia.com

Bidali zure datuak
posta elektronikoko edo
posta arrunt bidez



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuma

1. Teilapea, teilatu azpiko gela. 2. Izugarri maite du ura. Ardi, hitz elkartzeetan. 3. Euskal Herriko herrialde eta lurralde historikoetako bat. Lur kolore iluneko. 4. Burdinazko soka. Inuiten baliatzen duten eraikin mota. 5. Etxe animalia. Potasioaren ikur kimikoa. 6. Boroaren ikur kimikoa. Loreak ematen dituen zuhaixka mota. 7. Izaki edo gauzaki bat adierazten edo gogoratzen duen lerro, kolore eta formen multzo. Arrain mota. 8. Koartangoko herrixka. Detektagailu mota. 9. Ufakoa. Ikur ortografikoa. 10. Baztertuak, zokora bidaliak.

Goitik behera

1. Listuak, txistuak. Biluzi. 2. Aise. Zakur askok dute izen hau. 3. Direnen, izatea dutenen nolakotasunak. 4. Labealdia. Oxigenoaren ikur kimikoa. 5. Gabarra txikia. Txulapaingo herrixka. Praseodimioaren ikur kimikoa. 6. Ingelesak arrastiko bostak aldera edaten bide duten egoskari. Ipar Euskal Herrian, inguru. Garra. 7. Uranioaren ikur kimikoa. Nafarroa Behereko aitoren semeren familia. XIV. mendeko ahaideen gerretan, agramondarren alderdiari izena eman ziona. 8. Herrialde beregain baten lege agintea duen biltzar. 9. Hoben. Legea. 10. Sarrerak nahiz urteerak. Garai bateko txakurrak.

Soluzioa

K	V	N	T	V	R	O	K	O	Z
V	N	N	U	P	V	A	F	U	
R	V	N	O	S	V	N	U	L	
O	B	E	W	I	D	U	H	I	
V	A	M	A	I	S	A	S	B	
K	V	R	U	R	A	K	Z		
V	U	L	G	I	E	T	K		
E	R	R	E	V	A	B	A	V	
T	R	A	L	E	V	Z	U		
V	E	A	T	U	P	E	A		

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Uribe Kostako zein musika taldek emango du azken kontzertua martxoaren 6an?

> Aurrekoaren erantzuna: Asier Hormaza

> Irabazlea: **Zuriñe Martínez***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Nor elkarrizketatu dugu ale honetako Aitormenak atalean?

- **Pinotxo**
- **Miren Amuriza**
- **Sorkun**

> Aurrekoaren erantzuna: Aterkia

> Irabazlea: **Markel Peña***

*deitu telefonoz: 94 491 13 37

SARIA

SARIA **Argia**

astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



Aurtengo Nobedadeak:
Zoo Zorua eta Armix Kart

Demoak:
www.elhuyar.org/armixkart
www.elhuyar.org/zoozorua

Joko hau opari gura baduzu, Interneten erosi; %5eko deskontua www.elhuyar.org/edizioak helbidean



Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu



ANDONI URRUTIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

PORTUKO MOJEN IKASTETXEA, 1940

Maria Rosa Rogelia Cortina Maria Rosa Rogelia Cortina Aldecoa andreak, Andres Cortina Pinagaren alargunak, hil orduko (1883-09-19), urte bereko otsailaren 3an bere testamentuan "200.000 reales de vellon" utzi zituen ikastetxea eraikitzeko Algorta auzoan. Juan Bautista Cortina Aldecoa bere nebak bete zuen arrebaren guraria (Carlos M^a Zabala, Historia de Getxo). Argazkian ditugun 52 umeak (3-6 urte artekoak) ikasgela berean zebiltzan irakasle bigaz (argazkiko moja biak); ikasle hauek ez zuten ezer ordaintzen, baina bazeuden ikastetxe horretan ordaintzen zutenak ere. Garai hartan Zabala eskolak ere bazeuden baina kontuan izanda ikastetxe honek 103 urte iraun zuela (1991-1992 ikasturtea izan zen azkena), pentsa ezazu zenbat algortar pasatu diren bertatik! ○

1. **lerroa:** Sor Carmen eta Sor Maria Castañeira.

2. **lerroa:** Emiliano Arenas, Francisco Perez, Luis Perez, Manolo Mendizabal, Jose M^a Eguizabal, Pedro Servan, Imanol Urrutia, Javier Saez, Jon Urrutia.

3. **lerroa:** Jose Luis Ruiz, Javier Zubiaur, Antonio Escobar, Roberto Zarraga, Jesus Gandara, Eugenio Zarraga, Juan Martin, Ignacio Letamendia, Jose Luis Duce.

4. **lerroa:** Iñaki Orueta, Roberto Odriozola, Ramon Mota, Florencio Piedra, Pedro M^a Martinez, Juan Jose Bilbao, Roberto Rivas, Cesar Uriarte, Jesus Gandara, Jose M^a Sanchez.

5. **lerroa:** Jose Luis Lazaro, Lejandro Herreros, Jose Luis Perez, Juan Rafael Muruaga, Sixto San Martin, Joseba Orueta, Angel Zubieta, Ignacio Blanco, Victor Gonzalez, Victor Dominguez, Eduardo Dominguez, Joseba Ardanza, Gaizka Ardanza.

MIREN AMURIZA > bertsolaria

“Mirestu bertsolariakaz abesteak jada, berezia egiten du saioa”

Testua: Zuberoa Iturburu



Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Protagonistarena baino, igual bigarren mailakoan gusturago aurkituko nintzateke, baina ez dakit, ondo bukatzen den edozeinetan.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun? Zergatik?

Txikitari betikoa izan gura nuen, andereñoa, albataria... Baina une honetan zerbait esatekotan, aktore edo pailazo ibiliko nintzateke.

Badakazu ohitura txarren bat?

Goizetan iratzargailua amata eta ohean pixka bat gehiago geratu, eta gero berandu samar ibiltzen naiz.

Aitor dezakezun bizio bat?

Txokolatea eta festa.

Zerk ematen dizu beldurra?

Bakardadeak. Bakarrik egotea oso gustuko dut, nik aukeratua denean, baina bakarrik imajinatzea hemendik urte batzuetara, hori ez nuke gura.

Barrero egungo zenukeen bidaiarik badago?

Nikaraguan egon nintzen orain urte pare bat eta duda barik joango nintzateke barrero. Beste leku askotara ere.

Animalia bazina, zer izango zinateke?

Txori txiki bat, arbolaz arbola kantari ibiltzen diren horietakoa.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Lagun barik, inguruan jende barik, ume barik, irri eta jolas barik.

Bertsoaldirik ederrenak non?

Txapelketa Nagusitik hona asko aldatu dira bertsoaldiak. Lehen inguruan abesten nuen. Orain ordea, mirestutako bertsolariakaz kantatzea, horregatik bakarrik berezia da bertso-saio bat.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna? Zergatik?

Andikoa, Berrizen, bertakoa naiz. Goizean pentsatu dut, leioa zabaldu eta Anboto elurtuta ikusi dudanean, hau ez nuke aldatuko ezergatik. ○

LABURREAN—Bat-batean ezagutu dugu bertsolarien belaunaldi barri bat, Bizkaian batik bat. Zarata handiegirik egin barik lekua hartu dute bertsogintzan, horietatik asko dira emakumeak. Azken Txapelketa Nagusian erakutsi dute indarra, gehienak uste baino askoz urrunago iritsi dira, “handi” askoren pare ibili dira, edo hobeto. Horien artean dago Miren Amuriza, 19 urteko berriztarra. Kantatzeaz gainera, Euskal Filologia ikasten dabil, baina beste hainbat gauzatarako tartea ere gordetzen du, bertso eskolan klase emateko edota ikastaroak egiteko. “Denborarik ez dugula diogu gero, baina orain ez bada, noiz egingo dut?”, dio berak, “ez dut balio-eta geldi egoteko”.

*Arreta-faita ?
Motibaziorik eza ?
Autoestimu gabezia ?
Denbora galtzeko joera ?
Ikasterakoan noragabe ?
Memoria hobetu beharra ?
Ulermen urriko irakurmena ?
Kontzentrazioerako eragozpenak ?
Planifikazio eraginkorraren premia ?
Azterketetan emaitza kezkarriak ?
Azalpenak ematean gaitasun ezegokia ?
Jendaurrean hitz egiterakoan izu-ikara ?*

*ZEIN DA ZURE LEHENTASUNIK BEHINENA ?
ZERGATIK HAUTATU DUZU ?
ZERGATIK DA ZURETZAT GARRANTZITSUA ?
ZEINTZUK DIRA IRTENBIDEA EZ EMATEAREN ONDORIOAK ?
HAINBESTE ZERGATIK KEZKATZEN ZAITU ?*

ARRAKASTA PLANIFIKATUZ, PORROTA SAHIESTU.



**ERDU
PRAKAGORRI_{ra} !!!**

ERAGINKORTASUNA, KALITATEA ETA EMAITZAK.

Ondorengo gaietan adituak:

*Oratoria,
Idazkera bikaina
Memoria garatzeko teknikak
Pertsona- eta Lanbide-garapena
Ulermen jasoko irakurketa azkarrerako teknikak,
Denboraren optimizazioa eta kudeaketa
Ikasketarako metodo aurreratuak
Kontzentrazioa*

PRAKAGORRI S.L Jesusen Bihotza kalea 2A GETXO (BIZKAIA)
Tf. 685735484-944915763 prakagorri@prakagorri.es - <http://www.prakagorri.es>

WWW.GETXO.NET/EUTSI

EUTSI GOGOR!

ANIMATU ZUREAK EUSKARAZ



Animatzekoak sakelakora deskargatzeko
(SMS) bidali **aurrera 5195**

Sustatzailea:



Getxo

Udala - Ayuntamiento - City Council



EUSKADI

Ekaitza:



EPA



LEKARRIDE



EUSKADI